

2024-09-06 BARIKUA / 990. ZENBAKIA / 22. URTEA
DURANGALDEKO ASTEKARIA ANBOTO.ORG TOKIKOM



Apustuko bost lagunak, Arrazolako plazan.

Arrazolatik Andastora nor lehenago heldu apustuan, beteranoak garaile / 8

Joan zen zapatuan desafio kuriozosa egin zuten Arrazolan: beteranoak gazteen aurka, mendian gora



Eguenean beste elkarretaratze bat egin zuten Berrizko anbulatorioan.

Mediku faltaren auzia berriro kezka iturri Zaldibarren eta Berrizen / 4

Abadiñoko Udalak 1.050 euroko ordainsaria kendu die errogatibako anderuei / 12

'Fue en abril' antzezlanaren idatzi dute, Rosa Martinez-Alcocer aktorea omentzeko / 17



"KIROLARIEN ARTEAN 'KIROL PSIKOLOGOA DUT' ENTZUTEA GEROAGO ETA OHIKOAGOA DA. MODAN IPINI DEN KONTUA DA"

Itsasne Blanco kirolean espezializatutako psikologoa da. Paziente dituen kirolari asko trail mundukoak dira, batez ere distantzia luzeetan dabiltzanak / 2-3



Blanco Azkoitiko Miren Etxebarria Group zentroan eta Tolosako Garai zentroan dabil, besteak beste, kirol psikologo modura.

"Normalean, emaitza baino ez dugu buruan, eta ahaztu egiten zaigu gozatzea"

ITSASNE BLANCO SEGURA KIROL PSIKOLOGOA

Kirol munduan geroago eta gehiago berba egiten da osasun mentalari buruz. Itsasne Blancok arlo askotako kirolariek lan egiten du, euren emozioak bideratzeko asmoz

Joseba Derteano ATXONDO

Buruak asko agintzen du gorputzean eta kirol errendimenduan. Horregaitik, geroago eta preziatuagoak dira kirol psikologoak. Adibidez, Itsasne Blanco (Atxondo, 1999). Sarritan, kirolariek euren emozioak kudeatzeko dituzten mugak antsietatearen edo frustrazioen atarikoak izan daitezkeela dio.

Azken urteetan kirolariengan osasun mentalak duen garrantziari buruz normaltasun gehiagogaz berba egiten hasi garela uste duzu?

Bai, une honetan, zorionez, modan ipini den kontua da. Kirolarien artean "nik kirol psikologoa dut" entzutea geroago eta ohikoagoa da. Osasun mentalari garrantzi handiagoa ematen zaio. Hala ere, psikologiak badu oraindino tabutik. Ez dira modu eta tonu berdinean esaten "psikologoarengana noa" eta "medikuarengana noa". Oraindino badago lanketa bat egiteko.

Zelakoak dira zugana heltzen diren kirolarien profilak? Zeintzuk beharizan dituzte?

Euren kirolean hobetu gura duten eta hori lortzeko zer pauso eman ez dakiten kirolariak dira gehienak. Nire pazienteen %90 amateurrak dira. Askok mugak dituzte euren emozioak kudeatzeko. Izan ere, gure mugak askotan ez dira fisikoak, mentalak baino. Ez dakite zelan gestionatu estresa, antsietatea... batez ere kirol lehiaketa baten aurreko egunetan. Oso urduri ipintzen dira eta batzuk gaixotu ere egiten dira. Hau da, buruari bueltak ematen hasten dira eta azkenean emozioak fisiologikoki gorputzean agertzen dira. **Txapelketetan langa altuegi ipintzen dugu?**

Emaitza bat lortzeko lehiatzen da, hori argi dago. Baina gehienetan emaitzari garrantzi handiegia ematearren, egindako lanak fruiturik ez emateko arriskua dago. Normalean, emaitza baino ez dugu buruan, eta ahaztu egiten zaigu gustuko dugun kirolaz gozatzea. Azkenean, horrek erre egiten zaitu eta frustrazioa eta antsietatea agertzen dira. Nik beti esaten diet proze-

suaz gozatzen badute helduko direla emaitzak.

Zelan egiten da burua prozesuan zentratzeko lanketa?

Lanketa handia dago atzetik. Psikologian astiro ematen dira aurrerapausoak, pertsona baten bizitzan faktore askok dutelako eragina, egoera pertsonala berrane. Gauzarik txikienak pentsatzen dugun baino eragin handiagoa izan dezake. Beraz, astiro eta modu konstantean egin beharreko bidea da.

Zein arlotako kirolariak dituzu gehien?

Trail munduko asko ditut. Modan dagoen kirola da. Batez ere distantzia luzean dabiltzanak emaitza baino ez dute izaten buruan sarritan; erlojuari etengabe begira, denboraren barruan ote doazen. Eta distantzia luzeetan buruak asko du esateko. Helburu txikiak ipintzea da irtenbide bat, denborak sektoreka banatzea. Eskailera bat igotzearen antzerakoa da, mailarik maila joatea.

Futbolariak, arku-tiroa egiten dutenak eta piraguistak ere baditut. Ni kirol horiek probatzen ahalegintzen naiz, sentsazioak zelakoak diren jakiteko. 12 urtez Elorrio klubean futbolaria izandakoa naiz eta ezagutzen dut: arku-tiroa ere probatu nuen, barrutik ezagutzeko.

Zure ustez, badago desberdintasunik eliteko kirolarien eta kirolari amateurren artean osasun mentaleko arazoak esperimintatzeko eta maneiatzeko orduan?

Bai. Eliteko kirolari baten kasuan, kirola bere bizitza da, egunerokotasunari dagokionez, ekonomikoki... Futbolarien kasuan, esaterako, kontratua berrituko dioten ala ez eta antzerako kezak izaten dira ohikoenak. Presio handia izan dezakete, baita kanpo faktoreen eraginez ere, sare sozialen bitartez, esaterako. Enfoke desberdina erabili behar da eurekin.

Baduzu mezurik kirolariei edo kirol munduko eragileei bidaltzeko?

Nire ustez, garrantzitsua da etorri daitekeenari aurrea hartzea. 14 urteko kirolari gazte batez lan egiten nabil, dagoneko bere kirolean nabarmentzen dabilena. Kasu honetan, etorkizunean gertatu daitekeenari aurrea hartzea eta gazteari emozioak kudeatzeko erremintak eskaintzea da gurasoen helburua. Umetatik landu beharrekoa da, eskola kirolek bertatik.

"NIRE PAZIENTEEN %90 AMATEURRAK DIRA. MUGAK IZATEN DITUZTE EMOZIOAK KUDEATZEKO"

"Kirol arloko psikologia indarra hartzen dabil"

MIKEL BIZKARRA ETXEGIBEL TXIRRINDULARIA

Mikel Bizkarra buru-belarri sartuta dabil Espainiako Vueltan. Kirol profesionalean psikologia lantzea geroago eta joera orokortuagoa dela uste du mañariarrak

Ekaitz Herrera TXIRRINDULARITZA Zelakoak izaten dira probak mentalki prestatzeko saioak?

Atalik garrantzitsuenetariko bat aurrean ditugun ibilbidea, etapa, eta eguraldia zelakoak diren jakitea izaten da. Proban zer gertatu daitekeen aurreikusten ahalegintzen gara. Ez da erraza izaten asmatzea, baina inportantea izaten da gutxi gorabeherako ideia bat izatea. Azken finean, taldeak eskatzen dizuna bete behar duzunez, hori aurretiaz irudikatzea dagokizu.

Kirol psikologoekin esku hartzen duzu? Existitzen da figura hori kirol taldeen artean?

Euskaltel taldearen barruan ez



Mikel Bizkarra.

daukagu halako figurarik, eta nik neuk ez dut kirol psikologoekin esku hartzen. Baina nire lagun bat kirol psikologoa da, eta, beragaz lanik egiten ez dudan arren, laguna izatera, berba egiten dugu eta oso une aberasgarriak dira niretzat. Ez da lan bat bere horretan, baina zorte hori daukat.

Eta laguna duzun arren, laguntza psikologiko horren onurarik igarri duzu?

Buruz ondo ez bazaude, gogorik barik eta motibaziorik barik bazaude, gatz da gauzak ondo irtetea. Kirol profesionalean munduko kirolaririk onenatarikoak daude. Eta ondo prestata edo motibatuta ez bazaude, eta batez ere kirol profesionalean urte ugari badaramazu, ezin da maila onik eman.

Lesioak, erorikoak, taldeetan egon daitezkeen esperientzia txarrak... Zelan ematen zaie buelta horiei guztiei?

Buelta ematea gatz izaten da beti, baina badakigu gure esku dagoen guztia egin behar dugula egoera albatik arinen konpontzeko. Askotan esan didate honako hau: "Zelako bizkor

errekuperatzen zareten lesioetatik!". Ez dakit arin errekeratzen ote garen, baina jausten garen momentutik ahalik eta gauzarik gehien egiten ahalegintzen gara egoera leheneratzeko.

Zelan kudeatzen da esposizio mediatioak dakarren presioa?

Nire kasuan, ez dut halako presiorik sentitzen. Beharbada munduko kirolaririk onenatariko batek, egunero lupagaz begiratzen dioten kirolari batek, igarriko du hori. Ez naiz munduan ezaguna, ingurukoek eta gutxi batzuek gehiago ezagutzen naute, eta, horrenbestez, zortea dut, ez dut kanpotik datorren presiorik sentitzen.

Osasun mentalak kirol arloan duen presentzia handitzen ikusiko duzu?

Bai. Indarra hartzen hasi dela esango nuke. Orain 5-10 urte, inork ere ez zuen kirol arloko psikologiaz berba egiten. Orain, oster, jende askok dio psikologo bategaz lan egiten duela. Eta munduko kirolari on askok hori publiko egin dutenez gero, horrek joera handitu du. Urteekin inportantzia handia hartuko duelakoan nago.



CENTRO INTEGRADO DE FORMACIÓN PROFESIONAL
ZORNOTZA
LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXE INTEGRATUA

Urritxe auzunea, z/g · Tfno: 688 665 300 · 946 730 251
48340 AMOREBIETA-ETXANO (Bizkaia)
e-mail: maranburu@fpzornotza.com · www.fpzornotza.h.eus




LANDUNEI ETA LANGABEEI ZUZENDUTAKO IKASTAROAK				
KODEA		IKASTAROA	ORDU	DATA
GIZARTE ETA KULTUR ZERBITZUAK (praktikak enpresan)				
24481758	SSCS0208	Mendekotasuna duten pertsoneri laguntza soziosanitaria ematea gizarte-erakundeetan MF1016, MF1017, MF1018, MF1019	370	Iraila
OC24480149				Urria
24481759				Otsaila
FABRIKAZIO MEKANIKOA				
OC24480150	UF3004	Karbono-altzairuzko TIG soldadura	90	Otsaila
OC24480124	UF3005	Altzairu herdoilgaitzezko TIG soldadura	90	Azaroa
OC24480125	UF3008	Soldadura karbono-altzairuzko xafila eta profilez estalitako elektrodoekin eta oinarrizko elektrodoekin	90	Iraila
OC24480151	FMEC0003OH	AUTOCAD	66	Azaroa
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA (praktikak enpresan)				
24481757	ELEM3011	Automatizazio-sistema industrialen muntaketa eta zainketa MF1978, MF1979	390	Azaroa

%100 Diruz lagunduak Lanbide eta Europar Gizarte Funtsagatik

Aurreinskripzioa zabalik (ikastetxean eta/edo telefonoz)

www.lanbide.euskadi.eus
688 665 300







Zaldibarko osasun zentroa. EKAITZ HERRERA

Zaldibarren medikurik ez datozen hile bietan

Osakidetzak Elorriko anbulatoriora bideratuko ditu herritarrak. Zaldibarko Udalak gutuna helarazi dio Osakidetzari, arreta "lehenbailehen" berrezartzea eskatzeko. Herritarrek protesta egingo dute gaur, 19:00etan, udaletxeko plazan

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Zaldibartarrak medikurik barik egon dira opor sasoiko azken asteetan, eta egoerak halantxik jarraituko du, Osakidetzak bere aurreikuspenak aldatzen ez baditu. Egoera konpontzeko asmoz, Zaldibarko Udala hartu-emanetan ipini da Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratuko (ESI) arduradunekin. Eta osasun arduradunek astelehenean Zaldibarko Udalari berari baieztatu ziotenez, bizilagunek ez dute medikurik izango, gutxienez datozen hile bietan. Horren ordez, herritarrak Elorriko osasun zentrora bideratuko dituzte. Zaldibarko Udalak kexa agertu du: "Gogoratu behar da Zaldibarrek, normalean, mediku bi izaten dituela, eta ez dagoela Zaldibar eta Elorrio arteko zuzeneko garraio publikorik". Hori dela eta, egoerari buelta emateko asmoz, gutun bat helarazi diote Osakidetzari. Eskari bi batu dituzte idatzian, honako hauek: Zaldibarko osasun zen-

troko mediku zerbitzua "lehenbailehen" berrezartzea, "herritarrei osasun zerbitzu duina eskaini ahal izateko", eta "mediku zerbitzua berrezarri bitartean Zaldibarko herritarrak hurbilen dagoen osasun zentrori bideratzea, eta, hala ez bada, garraio zerbitzua bermatzea".

Bestalde, gaur arratsaldean Zaldibarko Jendeak taldeak, Pentsiodunek, Talde Feministak eta Gaztetxeak elkarretaratzea egingo dute egoera salatzeko. 19:00etan izango da, udaletxeko plazan.

"Mediku falta"

Zaldibarren gertatu da oraingoan, baina antzera bateko egoerak ez dira arrotzak Duran-

**ENERITZ AZPITARTEK
GUTUNA HELARAZI DIO
OSAKIDETZARI,
ZALDIBARTAR GUZTIEN
IZENEAN**

galdeko gainerako udalerrietan. Berrizko kasua aipagarria da. Bertako anbulatorioak, berez, hiru mediku plaza ditu esleitura, baina momentu honetan bakarra dabil arreta eskaintzen. Gainera, Berrizko Pentsiodunek udan medikurik barik egon direla kritikatu dute, eta egunean elkarretaratzea egin zuten. Elorrioren ere, antzera. Kantsultategiak bost medikurentzako lekua du esleitura, baina udan gorabeherak izan dituzte. Osakidetzako iturriek jakinarazi duteenez, "baja bi" egon dira udan zehar, eta "mediku faltaren eraginez" zaila izan zaie "ordezkapenak antolatzea". Argi Gorriak plataformako Jesus Aristegik kritikatu duenez, mediku zerbitzua "gaur bai, bihar ez, gaur bai" izan dute herrian: "Normalduta dago medikurik ez egotea, eta salatzeko modukoa da". Osakidetzako iturriek hedabide honi azaldu diotenez, "mediku falta" da egoera orokortuaren oinarri.

Antzerako egoerak Durangaldean



Berrizen egunean egindako kontzentrazioa.

Elkarretaratzea Berrizen. Berrizko Pentsiodunen Mugimenduak deituta, egunean elkarretaratzea egin zuten herriko osasun zentroraren aurrean. Udalerriri dagozkion hiru medikuak izan arte ez direla geratuko azaldu zuten.



Elorrioren osasungintzaren alde egindako elkarretaratze bat.

"Salatzeko moduko egoera". Elorriko Argi Gorriak taldeak ez du mobilizaziorik egingo Ferixa Nausikoek irauten duten bitartean, baina aurrera begira ez dute protestak egitea baztertzeko. "Uda osoan medikua orain bai, orain ez bili gara. Egoera salatzeko modukoa da", esan dute.

Bilera eskaria Osasun sailburuari

Osasun Publikoaren Alde (OPA) Herri Plataformak bilera bat eskatu dio Alberto Martinez Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuari. Plataformako kideek prentsara bidalitako oharrean azaldu dutenez, bileraren helburua euren "kezka eta eskaera nagusiak" azaltzea da. Plataformak honen barruan hamazazpi talde daude eta horietatik hiru eskualdekoak dira: Durangoko DOPA, Berrizko Pediatría 24h eta Zornotzako ZOPA.

Horrez gainera, Osasunari buruzko Euskal Ituna egiteko prozesuan aktiboki parte hartu gura dutela iragarri dute: "EAE-

ko osasungintza publikoaren aldeko gizarte-eragile nagusia garen aldetik, uste dugu sistema horrek bizi duen egoera kritikoa irerantzuna eman gura dion akordio batek nahitaez eskatzen duela eremu honetan aktiboan diren herritarren sektoreek parte hartzea. Ulertezina, onartezina eta jarrera demokratiko eskasaren erakusle izango litzateke Osasunari buruzko Euskal Ituna egitea herri plataformen parte-hartzea baztertzeko", azaldu dute. Era berean, sailburuaren erantzuna "zuzenean" ezagutzea eskatu dute, kabinetearen "asmoen berri izateko".

Zapatublai programan inskribatzeko epea, zabalik

Inskripzio epea irailaren 11n amaituko da. Aisialdi ekintzak urriaren 5ean hastea aurreikusi dute

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Lagun artean euskaraz gozatze-ko aukera eskaintzen duen Zapatublai programa bueltan da. Zapatuetan izango da, hamabostean behin. Ikasturte honetako eskaintzan, Zaldibarko Udaleko Euskara Zerbitzuak 2015etik 2021era bitartean jaiotako umeentzat izena emateko epea zabaldu du. Interesdunek irailaren 11ra arte eman dezakete izena. Dena dela, ekintzak aurrerago hasiko dituzte, urriaren 5ean. Aurtengo aisialdi eskaintzan ere, honako balio hauek sustatuko dituzte: lagun arteko gozamen, euskararen erabilera, parte hartzea eta ingurumenagazko errespetua. Ordaindu beharreko kuota 40 euro da. Inskripzio epean zehar eskaintako plaza kopurua baino eskatzaile gehiago badago, zozketa egingo dute. Zaldibarko Euskara Zerbitzuan informazio gehigarria jaso daiteke.

Hizkuntza Eskola prest ikasleak hartzeko

Martxan da Durangoko Hizkuntza Eskola Ofizialean matrikulatzeko prozesua

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko Hizkuntza Eskola Ofizialean matrikulatzeko prozesua zabalik dago. Fase nagusi bitan egingo dute matrikulazioa. Lehenengo fasea irailaren 17ra arte egongo da zabalik. Bigarren fasea irailaren 18tik urriaren 7ra bitartean egingo dute.

Durangoko Hizkuntza Eskolak, euskaraz gainera, ingelesa, frantsesa eta alemana eskaintzen ditu, A1, A2, B1, B2 eta C1 mailetan. Ikastaro osoaren prezioa 72,36 euro da, titulua lortzeko azterketa deialdi bi barne. Izen ematea Interneten egin daiteke, Ikasgunearen bitartez, eskolako web orrian: www.eoidurangoheo.hezkuntza.net

Durangoko Hizkuntza Eskolak hizkuntza-trebetasuna hobetzeko interesa duten herritar guztiak gonbidatu ditu izena ematera.

Kritikak Higiezinaren Zerga %14 igotzeko asmoari

"Zerga igo behar dela uste dugu, baina ez era horretan", adierazi du EH Bilduk. Igoera "neurrian eta era progresiboan" egitea aldarrikatu dute. Herriaren Eskubidearen iritziz, gobernu taldeak proposaturiko igoera "justifikaziorik bakoa" da

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak iritzi kontrajarriak agertu dituzte gobernu taldeak Ordenantza Fiskalak berritzeko egindako proposamenaren aurrean. Talde subiranistak Ondasun eta Higiezinaren gaineko Zerga "neurrian eta era progresiboan" igotzea proposatu du, "EAJk planteaturiko %14ko igoera linealaren aurrean". "Gehien daukatenek gehiago ordaindu dezaten" gura dute subiranistek. Hori dela eta, komertzio txikien zerga %2,7 igotzea proposatu dute, eta komertzio handiena %4. Industria arloan ere, maila bi proposatu dituzte: %3ko igoera 230.000 eurotik beherako balio katastrala duten enpresentzat, eta %5,5eko kopuru horretatik gorako balioa dutenentzat.

Herriaren Eskubidearen berbetan, gobernu taldeak Higiezinaren Zerga %14 igotzeko egindako proposamena "justifikaziorik



Otamotzena auzoko eraikinak.

bakoa" da. Gainera, etxebizitza batzuek datorren urtean "aurtengoahalako bi" ordainduko dutela iragarri dute. EH Bilduk ere ildo beretik berba egin du. Udalerriko etxebizitzaren balio katastralak "errealitatera ego-

kitu barik" jarraitzen duela dio. Muruetatorre eta Ibaizabal herriko auzorik garestienetarikoz batzuk direla adierazi dute, eta Galtzaretako eta San Rokeko "txalet-kaleetan" higiezinaren balio katastralak %25 jaitzi direla.

Zabalarra eskolan aurrera doaz sukaldeak ipintzeko lanak

Haur Hezkuntzako eremuan hainbat berrikuntza egin dute, bost urtekoen gelak lau urtekoenekin lotuta

Ekaitz Herrera DURANGO

Hile batzuk itxaron beharko dira oraindik, eta pazientzia apur bat beharko da, baina Zabalarra ikasleek eskolan bertan kozinaturiko otorduak izango dituzte laster. Uztailearen hasieran, eskolako eraikinean sukaldeak egiten hasi ziren, eta, aurreikuspenen arabera, datorren urteko uda amaierarako amaituko dituzte lanak. Ikasleek orduan estreinatuko dituzte sukalde eta jangela berriak. Azpiegiturok orain arte jangela egon den lekuan egingo dituzte,



Sukaldeak izango duen kokalekua.

baina eremua handituta. Bien bitartean, ikasturte honetan zehar, beheko eraikinaren ondoan ipinitako moduluetan bazkalduko dute.

Aldaketa gehiago

Sukaldeko obrez gainera, Zabalarra komunitateak beste aldaketa batzuk ere igarriko ditu ikasturte berrian. Haur Hezkuntzako atalean hainbat moldaketa egin dute. "Iaz, bost urtekoen gela biak kristalezko hormekin batu genituen. Aurtengo bost urtekoen gela horiek lau urtekoenekin batu ditugu. Datorren urtera begira, beste gela bat batzea aurreikusen dugu. Honen guztiaren arrazoia mugimendu autonomoa lantzea da", azaldu du Nagore Gerriagoitiak, Zabalarra eskolako idazkariak.

Bitxigintza, elikadura eta sare sozialak Durangoko tailerretan

Durangoko Udalak irailaren 9an zabalduko du ikasturte berriko kultur tailerretan izena emateko epea

Ekaitz Herrera DURANGO

Aurtengo eskaintzan batu dituzten ikastaroen artean, pintura, bitxigintza, etxeko dekorazioa eta sakelakoagaz argazkiak ateratzeko tailerra daude. 2025eko urtarrilean ikastaro berriak estreinatuko dituzte. Hala nola sare sozialetan trebatzeko ikastaroa, arteterapia, elikadura, sendabelarrak, kosmetika naturala eta astronomia.

Ikasturte osoko iraupena duten tailerrek, pinturakoak kasu, hilean 29 euroko kostua izango dute. Eta hilabeteko iraupena

duten tailerrek zortzi eurokoa. Azken hauek urritik maiatzera egingo dituzte, martitzenetan, 18:00etatik 20:00etara. Guztira, zortzi orduko iraupena izango dute. "Tailerrak aukera paregabea dira durangarrak hainbat diziplinatan prestatzeko, gure herriaren kultura, artea eta sormena sustatzen diren bitartean. Gizarte modura dugun nortasuna indartzen duten ikastaro hauetan parte hartzea animatzen ditut herritar guztiak", azpimarratu du Jesica Ruiz Durangoko alkateordeak.

Ferixa Nausikoak borobilduko dituzte

Nogen eta Unidad Alavesa taldeek kontzertua emango dute gaur, 22:30ean, plazan; zapatuan Sukalki Eguna ospatuko dute eta Aldatsekua kuadrillez beteko da; jaiak amaitzeko, 'Elorriko kolore eta zaporeak' eta bertso saioa egingo dituzte domekan

A. M. ELORRIO

Ferixa Nausikoen azken txanpari ekingo diote gaur Elorrioren. CD Elorrio futbol taldeak abuztuaren 31n bota zuen txupina eta ordutik jai giroan murgilduta egon dira elorriarrak. Gaur, barikua, kontzertuak egongo dira plazan: Nogen eta Unidad Alavesa taldeek joko dute. Bestalde, zapatua egun handia izango da askorentzat; izan ere, Sukalki Eguna ospatuko dute. 08:00etan hasita, okelarik gozoe-na prestatzeko lehiatuko dira kuadrillak; ondoren, 18:00etan, karrozen jaitziera egingo dute.

Kolore eta zaporeak

Ohitura duten legez, Ferixa Nausikoei amaiera emateko, Kainabera taldeak antolatzen duen Elorriko Kolore eta Zaporeak azoka egingo dute Kanpokalen. Arratsaldean, bertso saioa egongo da; Miren Amurizak, Aitor Bizkarrak, Sustrai Colinak eta Uxue Alberdik kantatuko dute.



Euria ez zen oztopo izan Ferixa Nausikoei hasiera emateko. UNAI OLASO

Eskola Bideak egitasmoa irailaren 9an hasiko da

Zornotzako Udalak eta herriko ikastetxeek elkarlanean landu eta garatu dute Eskola Bideak ekimena



Esther Torvisco eta Sonia Cabeza zinegotziak.

A. M. ZORNOTZA

Zornotzako ikastetxeek elkarlanean egin dute Eskola Bideak ekimena, ikasleak ikastetxeetara oinez modu "seguru, jasangarri eta osasungarrian" joateko prestaturikoa. Udalagaz landu dute proiektua eta irailaren 9an ipiniko dute martxan. "Eskolako bidean segurtasuna hobetzen du eta autonomia ere sustatzen du. Ingurumenagazko errespetua ere oinarri du, guretzat funtsezkoa delako haurrek txikitatik ikastea zein garrantzitsua den ingurumen arloan arduraz eta errespetuz jokatzeari", adierazi du Esther Torvisco Agenda 2030erako zinegotziak. Ekimen honek, ikasleek Larrea eskolara, Andramari ikastolara, Karmengo Ama ikastetxera eta El Carmelo ikastetxera elkarrengaz joateko aukera izango dute.



Astepe auzoa.

Astepeko bizilagunek ia astea bete dute argindarrik barik

Abuztuaren 31ko ekaitzak eragindako kalteen ondorioz geratu dira argindarrik barik bertako bizilagunak

A. M. ZORNOTZA

Joan den zapatuko ekaitzak kalte larriak eragin zituen Zornotzako Astepe auzoan. Trenaren jarduna eten behar izan zuten, eta, horrez gainera, auzoko lagunak argindarrik barik geratu ziren ordutik. Apurka-apurka, teknikarien lanari eskerrak, normaltasunera bueltatu dira auzoan; hala ere, Astepeko auzotarrek ez dute aste erraza izan.

Zornotzako Udalak hainbat neurri hartu du auzoko bizilagunei laguntzeko, eta, besteak beste, kiroldegian dutxatzeko eta garbitzeko aukera izan dute.

Horrez gainera, janari zerbitzua eskaini diete.

Abuztuaren 31n ekaitz gogorrek astindu zuen Bizkaia, eta Durangaldean ere eragin handia izan zuen. Besteak beste, 20:00 bueltan, arbola bat sarera jausi zen, eta, horren ondorioz, kable bat katenariara gero. Tren zerbitzua etenda egon zen ordu batzuetan, baina gero berriro ipini zuten martxan. Inguruetakoa lantokietan ere apurka-apurka berreskuratu zuten jarduna. Baina etxebizitzetan egun batzuk behar izan dituzte arazoa konpontzeko.

Berrizko hainbat ikastarotan izena emateko epea, zabalik

Zeramika, txistu eta oinarrizko ingeles ikastaroak emango dituzte; irailaren 23ra arte eman daiteke izena

A. M. BERRIZ

2024/2025 ikasturterako antolatutako ikastarotetan izena emateko epea zabaldu du Berrizko Udalak. Izen emateak Internetez egin daitezke, irailaren 23ra bitartean. Aurten, zeramika eta txistu ikastaroak emango dituzte, eta 50 urtetik gorakoentzat ingelesezko oinarrizko ezagutzei buruzko ikastaroa. Zeramika ikastaroa irailaren 30ean hasiko da eta helduentzat izango da; saioak astelehenero izango dira, talde bitan banatuta, 16:30etik 18:25era bata eta

18:35etik 20:30era bestea. Txistu ikastaroa urriaren 2an hasiko da eta eguaztenetan izango da, 13:30ean. Azkenik, ingeles ikastaroa urriaren 4an hasiko da eta barikuro izango da, 09:00etatik 10:30era; oinarrizko ezagutza emango dute.

Ikastaroek plaza mugatuak dituzte eta ikastaro bakoitzagaitik 75 euro ordaindu behar da hiru hileroko. Ikastarotetan gutxieneko berriztar kopuru batek eman behar du izena ikastaroa bera egin ahal izateko.

ekarri zuk ere argindar
faktura goienerera



berriztagarria

bertokoa

euskalduna

kooperatiboa



goiener



📍 Satimami zumarkalea 26. Bilbo

✉ goiener@goiener.eus

🌐 www.goiener.eus

946 277 701
900 816 365



Oies Gorostiza, Iraitz Arkarazo, Gari Leturiaga, Egoitz Axpe eta Ibai Buruaga, Arrazolako plazan.

Andastorako apustuan, beteranoak irabazle

Arrazolatik Andastora nor lehenago heldu. Nagusiak gazteen aurka, lehenengoek denboran abantaila zutela. Horixe izan zen joan zen zapatuan bost arrazolarrek egindako apustua. Beteranoak heldu ziren lehenengo, baina denek irabazi zuten.

Izurtzako jaiak bigarren asteburuaren atarian

Gaur eta bihar Santo Tomas ermitaren bueltan batuko dute ekitaldi asko, Gertufest jaialdiaren barruan. Herriko plazan ere egongo da zegaz gozatu; esaterako, tortilla txapelketa egingo dute, eta, ondoren, Luhartz taldeak erromeria egingo du

J. D. IZURTZA

Izurtzako jaiak bigarren eta azken asteburuaren atarian daude. Joan zen asteburuan, herriko plazan eta Santa Ageda ermitaren inguruan izan ziren ekitaldi nagusiak, hala nola marmitako txapelketa, herri bazkaria eta Lotxo taldearen erromeria. Datozen egunetan, herriko plazak hainbat ekitaldiren kokaleku izaten jarraituko du, eta, gainera, Santo Tomas parkea batuko zaio, Gertufest jaialdiagaz.

Gertufest egun bitan banatu dute aurten. Gaur arratsaldean, barikua; eta bihar goizean, zapatua. Horrez gainera, beste hainbat nobedade ditu. Esate-



Gertufest jaialdia, Santo Tomas ermitaren ondoko parkean.

Joseba Derteano ATXONDO

Santixako jaietan sortu zen apustua, bazkari baten bueltan. Ibai Buruaga, Gari Leturiaga eta Oies Gorostiza arrazolarrek baietz zioten, kapaz zirela ordubetean Arrazolatik Andastora igotzeko. Baina denak ez zeuden kobentzituta. Metxa piztuta zegoen.

Handik astebetara buelta bat eman zioten gidoiari, beste arrazolar bi batuta, gazteagoak biak: Iraitz Arkarazo eta Egoitz Axpe. Apustuari intriga emateko, gazteagoak geroago irtengo ziren; Arkarazo 20 minutu geroago, eta Axpe, denetan gazteena, 25 minutu geroago. Beraz, interesgune bi zituen apustuak. Batetik, lortuko ote zuten 45etik 49 urtera arteko hiru arrazolarrek Andastora ordubete baino denbora gutxiagoan igotzea? Bestetik, gazteek harrapatuko ote zituzten nagusiak gora heldu baino lehenago?

Joan zen zapatu goizean egin zuten apustua. Azkeneko "berotualdia" hartu zutela onartu du Ibai Buruagak, eta azken txanpan "arnasa hartzea" kostatu zitzaizela, baina beteranoak heldu ziren lehenengo. 47 eta 52

minutu artean heldu ziren hirurak Andasto gainera. Handik gutxira heldu zen Axpe, minutu pasatxora, 29 minutuko igoera eginda. Arkarazo ere handik lasterrera batu zitzaien.

Beteranoek dena eman zuten apustua irabazteko. Esaterako, Buruagak bost minutuan hobetu zuen Arrazolako jaien bueltan egindako igoerako denbora.

Esperientzia "zoragarria"

Apustuak ikusmina piztu zuen eta 30 bat lagun batu ziren mendian gainean apustulariak animatzeko. Ondoren, hamarretakoa egin zuten denek, pernila, gazta, tortilla eta abar janda. Esperientzia "zoragarria" izan zela gogoratu du Buruagak, eta han sorturiko giroa nabarmendu du. Baina eguna ez zen Andaston amaitu. Eguerdian 23 lagunek elkarregaz bazkaldu zuten Arrazolako Erlaunpe soziedadean.

Etorkezunean egongo da beste apusturik? "Zeozer bai, seguru!", esan du Buruagak. "Mendira joan, izerdia bota, kuadrillan ibili eta lagun artean bazkaldu. Zer gehiago behar da, ba?", gaineratu du.

Mañariko Udalak antolaturiko kirol ikastaroak aukeran

J. D. MAÑARIA

Mañariko Udalak hainbat kirol ikastaro antolatu du ikasturte berriari begira. Izen ematea hasi aurretik, irailaren 16tik 20ra, ateak zabaltzeko jardunaldiak egingo dituzte gura dutenek doan probatzeko aukera izan dezaten.

Irailaren 16ko astelehenean, 17:00etan, GAP saioa probatu ahal izango da, eta, 18:00etan, Hipopilates. Irailaren 17ko martitzenean, hiru saio daude: 17:00etan mantentze-gimnasia, 18:00etan *strong by zumba*, eta 19:00etan yoga. Hurrengo egun bietan kirol ikastaro bi probatu ahal izango dira: eguaztenean, 17:00etan, *stretching*; eta barikuan, 18:00etan, zumba.

Ondoren, izen-ematea zabalduko dute, irailaren 23tik 27ra. Ikastaroak urriaren 1etik aurrera hasiko dira. Familia gurasobakarrek, familia ugariak, ikasleek, langabeek, erretiratuek eta desgaituek %20ko deskontua izango dute ikastaroetan.

rako, lehenengoz, antzerki saio laburrak antolatu dituzte, bost-hamar minutukoak. Formatu txiki horretan ikusi ahal izango dira *Lambe-lambe* txotxongilo ikuskizuna, *The flea zirkus* zirku ikuskizuna, eta Alfonso Diezen magia saioa.

Gertufesteko beste nobedade bat biharko piknik lehiaketa da. Belardian landa-bazkaria egitera gonbidatu dituzte bertaritzen direnak, eta piknik dotoreenak saria irabaziko du: askotariko produktuen otzara.

Luhartz erromeria

Izurtzako plazan ere hainbat ekintza izango da. Zapatuan, 19:00etan, tortilla txapelketa hasiko da, eta, ondoren, herri afarian batuko dira. 22:00etan erromeria izango dute, Luhartz taldearen eskutik.

Domekan, Jaizalaren kalejiragaz hasiko dute eguna, 10:00etan. Ondoren, 11:00etan, haurrentzako parkea egongo da plazan. Eguerdian igel txapelketa eta jubilatuen bazkaria egingo dituzte. Azkenik, 17:30ean, mus eta partxis txapelketak jokatu dituzte.



DURANGO

72,36€
EMAN IZENA



HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA



Ziurtagiri Ofiziala

Deutsch · English · Euskara · Français



MATRIKULA ZABALIK (on-line)
Talde presentzialak eta erdipresentzialak

Irailaren 2tik irailaren 17ra (1.fasea)
Irailaren 18tik urriaren 7ra (2.fasea)



Zubiaurrea Kalea, 1, 48200 Durango
015054aa@hezkuntza.net · 946 81 66 45
www.eoidurangoheo.hezkuntza.net



**anboto
kide**

Anbotokideen
txokoa

IRAILEKO ZOZKETAK



Alcamporen eskutik Euskal Herriko produktuen otzara.



Xiberu tabernan bi gosari bikoitz: Zornotza.



Aukan izozkiak. 6 izozki edo etxera eramateko 1/2 litroko 2 tarrina. Durango.

Okm:

batzen gaituen
distantzia

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

Egin zaitetz Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



lazko Laixiar eguneko irudi bat.

Iurretako kofradiek Laixiar Eguna ospatuko dute domekan

Herriko sei kofradien batzar nagusiagaz hasiko dute eguna, 12:00etan; ondoren, jai giroa izango da nagusi

A. Basauri IURRETA

Iurretako kofradiek euren egun handia ospatuko dute domekan, Laixiar zelaian. Kofradi Egunak 51. aldia izango du aurten, eta urtero legez egun osoko egitaraua prestatu dute. Herriko sei kofradien –San Marko, Fauste, Goiuri, Santa Maña, Iurreta eta Orozketa– Batzar Nagusiagaz hasiko da eguna, 12:00etan. Urteko kontuen berri eman eta gero, jai giroa nagusituko da Laixiar zelaian.

Herriko dantzarien erakustaldia amaitu eta gero, Gorka eta Mikel trikitilariak berotuko dute

jai giroa. Laixiarrera bertaratuak igel txapelketan parte hartzeko aukera ere izango dute. Ondoren, bazkaltzeko elkartuko dira.

Erromeria eta irrintziak

Iurretako Kofradien Elkartek umeentzako jolasak eta erromeria antolatu ditu arratsalderako. Irrintzi txapelketa ere egingo dute, eta irrintzia botatzeko abilezia duenak hortxe du aukera parte hartzeko. Irrintzi txapelketaren ondoren, Mirari eta Izarra trikitilariak girotuko dute jai giroa Laixiarren.

Peru Harri eta Lacturale bisitatzeko irteera Garain

Trumoittek eta Triatloi Taldeak bisita egingo dute museoa eta esneki fabrika ezagutzeko, irailaren 21ean



Peru Harri museoko eskulturak. PLAZAOLA TURISMO PARTZUERGOA

Bittor Kapanaga eta euskara hizpide hartuta

Historiazaleok taldeak antolatuta, Otxandion bisita gidatua prestatu dute azaroaren 17rako

A.B. OTXANDIO

Historiazaleok taldeak bisita gidatuak antolatu ditu Euskal Herriko historia ezagutzeko, *Oroit lekuak: Euskal Herriko historia euskaldunok kontatuta* ekimenaren barruan. Historialariek gidaturiko bisita horietariko bat Otxandion izango da, azaroaren 17an. Aintzane eta Agurtza Lazkano ahizpek gidaturiko *Bittor Kapanagaren bitzita eta ondarea, eta euskararen jatorria* izeneko bisita izango da. Lazkano ahizpak Euskeraren Jatorria Elkarteko kideak dira. Bisitan izena emateko, *euskararenjatorria@gmail.com* helbidera idatzi daiteke, edo 688 851 467 telefono zenbakira deitu. Bisita udaletxearen aurrean hasiko da, 11:00etan, eta ordu bi iraungo du. Bost geldialdi egingo dituzte, eta, bakoitzean Kapanagari buruzko azalpenak emango dituzte. 14 urtera artekoentzat doan izango da.

Ekaitz Herrera GARAI

Trumoitte Kultur Elkartek eta Garaiko Triatloi Taldeak irteera antolatu dute Nafarroako leku bi ezagutzeko. Lacturalek Arakil udalerrian duen esnetarako behien interpretazio zentroa eta Iñaki Perurena harrijasotzaileak Leitza duen Peru Harri museoa ezagutzeko dituzte, irailaren 21ean. Lacturaleko bisita 12:30ean izango da, eta arratsalde partean, nork bere etxetik eramandako jatekoagaz bazkaldu eta gero, Peru Harri bisitatu dute. Txangoan parte hartzeko, ezinbestekoa da 688 674 564 telefono zenbakian izena ematea. Interesdunek irailaren 12ra izango dute epea horretarako. Antolatzaileek iragarri dute izena ematen duen jende kopuruaren arabera antolatuko dutela autobusa.

Paella txapelketa eta musika kontzertuak Muntzaratzen

Asteburu honetan Muntzaratzeko jaiak ospatuko dituzte. Zapatuan, auzotarrak mozorrotuta irtengo dira kalera

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Irailaren 6tik 8ra bitartean, jaiak ospatuko dituzte Abadiñon, Muntzaratz auzoan. Antolatzaileek adin eta gustu guztietarako egitarau zabala antolatu dute asteburu honetarako ekin-tzekin.

Gaur emango diete hasiera jaiari, irailak 6, 19:00etan Donien Atxa jasota. Jarraian, Talde Batuak dantza taldeak saioa egingo du. 20:00etan makro disko-jaiak egingo da, eta 20:30ean parrillada, Hazi elkartearen eskutik.

Muntzaratzeko jaietako egun handia irailaren 7a izango da, zapatua. Mozorro Eguna izango da eta herriko familia eta kua-drillak paella txapelketan batu-ko dira auzoan. 10:30ean emango diote hasiera egunari, auto klasikoaren topaketagaz, eta 11:00etan umeentzako entzierroa egingo dute. 12:30etik aurrera, umeentzako puzgarriak eta tailerrak egingo dira, eta 14:00etan paellak lehiaketara aurkeztu beharko dituzte herritarrek. Arratsaldea Kittu taldeak giro-tuko du, eta 19:00etan hasita

Korroxion, Llama a la Pasma eta Urbagrind taldeen kontzertuak egingo dira. 20:00etan tortillak aurkeztu beharko dira tortilla txapelketara, eta 21:30ean suzko zezena egingo da. Egunari amaiera emateko, Fito y Los

MOZORRO EGUNEKO GAIA LIBREA IZANGO DA ETA MOZORROTZEKO GONBITA EGIN DUTE

Fitipaldis taldeari omenaldia egingo diote, eta 23:30ean disko-festa hasiko da, Espesor F-Sound-en eskutik.

Domekan emango diete amaiera jaiari, bazkari herrikoiaz eta txokolatadagaz.



Aurreko urte bateko paella txapelketako argazkia.

Here Moana taldea hileko bigarren domekako azokan

Durungaldeko ekoizleen hainbat elikagai eskuratu ahal izango da Txanporta plazan, 10:30etik 14:00etara



Aurreko azoka bateko argazkia.

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Irailaren 8an, hileko bigarren domekako azoka egingo dute Abadiñon. 10:30etik aurrera, eta 14:00ak bitartean, Durungaldeko ekoizleen hainbat elikagai eskuratu ahal izango da Txanporta plazan: ardi gazta, ahuntz gazta, ezti, ogia, ortuariak, esnekiak, kontserbak, txahal okela zein gozogintza. Azoka Txanporta plazan egingo dute, ohikoa duten moduan, baina euria eginez gero probalekuan izango da.

Hile honetako gonbidatuen artean, ehungintza, egur lanak, larruzko bitxiak eta ilustrazioak lantzen dituzten kideak izango dira.

Bestalde, dantza polinesiarrak egiten dituen *Here Moana* talde bilbotarra arituko da azoka girotzen.

Elizpeko pilota txapelketako izen ematea, martxan

Maialen Zuazubiskar MALLABIA

Mallabiko Urriko Jaietako ekimen bereziatariko bat elizpeko pilota txapelketa izaten da, lege berezi eta propioak dituen txapelketa. Antolatzaileak dagoneko badabilta aurtengo edizioa prestatzen, eta izen ematea zabaldu dute. Txapelketan parte hartu gura dutenek irailaren 9ra arte dute aukera 615 745 523 telefono zenbakira idatzi eta izena emateko.

Elizpeko pilota txapelketa irailaren 13an hasiko da eta bari-kuro jokatu dituzte partidua. Finala Urriko Jaietan izango da; urriaren 25ean, hain zuzen ere.



Aurreko edizio bateko argazkia.



BSG

MATIENA

BRAZILIAN JIU JITSU



Ume eta helduentzat
astelehenetik barikura.

ANIMATU ZAITEZ!

Informazio gehiago:

[@bsgmatiena](https://www.instagram.com/bsgmatiena)

bsgmatiena@gmail.com

2024/2025eko
eskolaz kanpoko
jardueretan
pent satu duzu?

4 eskola hilean fordu hasten

Gaztuak zaldiaz arin zehar, lan-ko koordinazio fisikoa eta mentala garapen sozial eta emozionala sustatzen duen kirola egiten duzun bitartean.





88€

Deitu
konpromisorik gabe

www.hipicazelaialai.com/

691 74 66 11

Gustafiatza 7/1
48215 Iurreta (Bilbao)

Abadiñoako Udalak ordainsaria kendu die errogatibako anderuei

Ekaitz Herrera ABADIÑO

Abadiñoako errogatiba berezia izan da aurten, erromesaldia santurik barik egin dutelako. Orain arte, talde bat arduratu izan da zeregin hori urtero egiteaz. Baina aurten ez dute santua Urkiolara eraman; udalaren berbetan, "boluntarioak falta" izan direlako santua eramateko.

Udalak informazioa eman du azken egunotan piztutako eztabaidari buruz. Udalak adierazi duenez, orain arte "1.050 euro" ordaintzen zizkien anderuei (210 euro pertsonako). Baina udalak halako ordainsaririk gehiago ez banatzea erabaki du, eta erabaki horren jatorria aurreko lege-zintaldian kokatu du. "Orduko

batzordeburuak, alkatetzan egon zen EAJ alderdikoak, gaia mahai gainean ipini zuen eta aho batez onartu zen", argitu dute. Hala ere, uztailean, aurreko urteetan harturiko "erabakia ez zela aurrera eraman" jakin du egungo gobernu taldeak. "Gauzak horrela, bilera bat egin genuen orain arteko anderuekin, erabakiaren berri emateko, eta aurreantzean ez zitzaieela ordainduko adierazteko. Anderuek, gogoeta egin eta gero, ezezkoa eman zioten udalari", jakinarazi dute.



Dantzarien saioa Errogatiba egunean.



POLITIKAN

PAULE SANCHEZ
EAJ

Eskerrik asko!

Lan ikusezinari aitortza publikoa egiteko erabiliko dut gaurko zutabe hau. Horrela izanik, nire esker ona helarazi nahi dizuet zuoi, Jon Sergio eta Mikel Ortega lankideei, gure herriarekin duzuen konpromisoagatik. Zuen lana funtsezkoa izan da Durango euskal kulturaren hiriburu eta kirol arloan erreferente bihurtzeko oinarriak ezartzen jarraitzeko orduan. *Chapeau*, txapela kentzeko moduko beharra egin duzue.

EAJ-PNVko zinegotzi gisa sartu zineten udalbatzan aurreko legegintzaldian. Urte hauetan Durango Udaleko Kultura eta Kirol arloei lotuta egon zarete, zuen ogibidea eta udalaren berezko ardurak elkar uztartuz, gogotsu eta ekinean, eta emaitza onekin. Zuen eskuzabaltasuna eta Durangori diozuen errespetua ukazina eta mirestekoa da, erdugarria. Aurrerantzean, egungo Gobernu Taldearentzat hain estrategikoak diren arloei ezin diezue merezi duten denbora eskaini, eta, postuari atxikirik geratu beharrean, beste pertsona batzuei lekukoa emango diezue, proiektuei jarraipen egokiena eskaini eta horiek burutu ahal izango direla ahalbidetuz. Oso euskarri onak ezarri dituzue, gogor lan egin duzue horretarako, eta orain beste batzuei dagokigu ondarearekin jarraitu, horiek hedatu eta gauzatzeko. Honengatik guztiagatik eta gehiagorengatik, eskerrik asko bihotz-bihotzez. Katea ez da eten.

DURANGALDEA ASTEON

Ordezkarri berriak Durango udalbatzan

DURANGO Durangon udalbatza berritu dute. Orain arte zinegotzi lanetan egondako hiru kideak kargua utzi dute, eta beste hiru zinegotzi ordezkatu dituzte. Honako hauek utzi dute kargua: Mikel Ortega eta Jon Sergio jeltzaleek, eta Jose Angel Orbegozo sozialistak. Honako kide hauek batu dira udalbatzara: EAJko Julene Zamalloa eta Iker Txertudi, eta PSE-EEko Sheila Gonzalez.



Mallabian jai batzordera deitu dute eguaztenerako

MALLABIA Datorren eguaztenerako, irailak 11, jai batzordera deitu dute Mallabian. Kontzejuzarrean egingo dute bilera, 18:00etan. Bilera zabala izango da eta herritar guztiak daude gonbidatuta bertara. Mallabiko Udalak sare sozialen bitartez jakinarazi duenez, Andra Mari jaien balorazioa egingo dute alde batetik, eta Urriko Jaietako buruz berba egingo dute bestetik.



ALEA.EUS

Lujanbioren Erre(ah)ala hilaren 12an, Arrazolan

ATXONDO Datorren egunean, irailak 12, Maialen Lujanbiok Erre(ah)ala ikuskizuna egingo du Arrazolan. Amillenak eta Atxondoko Kultura Mahaiak antolatu dute ekimena, eta Arrazolako San Migel parrokiako elizpean izango da, 19:00etan. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, aurretik ez da sarrerarik hartu beharko. Baina ikuskizuna amaiturikoan txapela pasatuko dutela gaineratu dute.

GUTUNAK

Idatzi zure gutuna eta bidali!

Zure gutuna helarazteko helbidea: **Bixente Kapanaga 9 - lurreta**
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:

• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 lurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretti Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



LAGUNTZAILEAK

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGUISTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak lagundua



30 euro
urtean!

Okm:
batzen gaituen
distantzia



Egin zaitez anbotokide!

anboto
kide

Okm:

*batzen gaituen
distantzia*

Abantailak

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

- %10eko deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

HITZ LIBURU-DENDA

- %10eko deskontua euskarazko liburuetan.

HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

- %15eko deskontua sarreran

IURRETA KOPISTEGIA

- %5eko deskontua eskola eta bulego materialean.
- %5eko deskontua musika, opari eta liburuetan.
- Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

KIROL ERROTA GIMNASIOA

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

LANDAKO OPTIKA

- %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean eta armazoi eta lenteetan.

ETXEDREAMS

- %10eko deskontua dendako produktu guztietan

NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

- %5eko deskontua produktu guztietan.

URRIKE LIBURU-DENDA

- %5eko deskontua liburuetan
- %10eko deskontua papergintzan

LA PERLA

- %15eko deskontua sasoiari jartzeko talaso zirkuituan
- %10eko deskontua osasun, lasaitasun eta edertasuneko banakako tratamenduetan

NAIA GORROÑO HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta erradiografietan

HONTZA MUSEOA

- %50eko deskontua sarreretan

URALDE HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta erradiografietan

EILEKE

Psikologia, neuropsikologia, logopedia eta psikomotrizitatea

- %15eko deskontua saio solteetan

TABIRA BITXIDENDA

- %5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan

PSIKOLOGIA AMOREBIETA

- %20ko deskontua zerbitzu guztietan

KEINU OPTOMETRIA ZENTROA

- Armazoizko lenteetan eta eguzkitako betaurrekoetan %10eko deskontua

GAU-TU

- Dendako ehun guztietan %10eko deskontua, eta 500 €-tik gorako erosketetan %5eko deskontua atsedeen sistemetan.

SOLOZABAL ALTZARIAK

- Denda eta erakusketako produktuetan %10eko deskontua (etxeko aire-gozagarrietan izan ezik)

URKIOIL GASOLINDEGIA

- Izurtzako eta Otxandioko Urkioil gasolindegietan 3 zentimoko deskontua litroko.

MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

- % 5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

Berria!

OSASUN ETXEA

- Zatoz Osasun Etxera eta doako ebaluazio bat egingo dizugu zure gantz, ur eta muskulu-masaren portzentajearen berri emateko. (Novaline)

Berria!

ZELAI ALAI

- Udalekuetan %10eko deskontua

***Sartu zure komertzioa
Anbotokideen deskontu sarean.
Atera etekina abantailei!***



***egin zaitez ANBOTOKIDE
eta baliatu abantailez!***



Laura Gogeaskoetxea ezkerrean, behean, Aitanaren kontzertuan.

"Aitanaren zaleak asko ematekoak dira, eta oso hurbilekoak"

LAURA GOGESKOETXEA DANTZARIA

DANTZA Laura Gogeaskoetxea dantzari durangarrak aste honetan urte bi bete ditu Aitana abeslari ezagunaren lantaldean; martxotik abuztura bitartean biran egon dira

Aritz Maldonado DURANGO

Laura Gogeaskoetxea dantzari durangarra lan eta lan dabil hileotan. Martxotik abuztura, Aitana abeslari entzutetsuagaz biran egon eta gero, astebeteko tartea baino ez du izan lur hartu eta azterketak prestatzeko. Ondoren helduko zaizkio merezitako oporrak. Urrian, baina, Aitanak jo eta su ekingo dio berriro ere Santiago Bernabeu zelaian abenduaren 28an eta 29an emango dituen kontzertuak prestatzeari. Kontzertu horietarako sarrera guztiak salduta daude maiatzetik (65.000 lagun inguru batuko dira eguneko). **Izan duzu oporrik udan?**

Udan jaialdien bira egiten ibili gara. Aurrekoan, Aitanaren kontzertu propioak ziren. Niri gehia-

go gustatzen zaizkit jaialdiak, bertan beste artista batzuk ikusteko aukera ere baduzulako, baina gogorra izan da. Martxoan hasi genuen bira, eta abuztuaren amaite dugu, eta, besteak beste, Mexikon izan gara, birritan; eurretari aldi batean egun gutxi batzuetarako. Hori ere bada gure lana, eta, ikusten ez bada ere, egin egin behar da.

Parte hartu duzun proiekturik handiena da hau?

Bai, eta bakarra ere bai! Aurretik dantzari legez lanik egin bakoia nintzen, eta aukera hau sortu zenean baiezkoa eman nuen, dudarik barik! Berez, ez nekien zer suposatuko zuen ere, ez nuelako inoiz horrelako proiektu batean lan egin, baina asko ikasi dut, bai pertsonalki eta

baita profesionalki ere. Diziplina handia behar duzu, eta lan asko egin behar dudan arren, oso gustura nago.

Lan handia egiten dugu. Urrian, Bernabeuko kontzertuak prestatzeko lanetan hasiko gara. Hiru hilabete ditugu aurretik, egunero zortzi orduz entseatzeko, eta gero zuk zure aldetik ere entrenatu behar duzu; sasoiaren egoteko, astean hiru bider entseatzaille batez lan egiten dut. Orokorrean, zeure burua zaindu behar duzu, mentalki ere ondo egon behar duzu, lan esijentean delako. Behin baino gehiagotan esan izan dut eliteko kirolarien modukoak garela, baina ez dugula haiek beste kobratzen. **Ikastera ala dantza munduan lan egitera joan zinen Madrilera?**

Unibertsitateko ikasketak Bilbon hasi nituen; gero, beka bat lortzeko aukera suertatu zitzaidan, eta Chilera edo Madrilera joan erabaki behar izan nuen. Madrilera joatea erabaki nuen, han dantzatik bizitzeko ahalegina egiteko. Hara joan eta ez naiz bueltatu (barrez). Osasun izurriak Madril harrapatu ninduen. Duda izan nuen garai hartan, han geratu edo Durangora bueltatu eta ikasketak amaitu. Eta, azkenean, han geratzeko apustua egitea erabaki nuen, eta ahalegina egin behintzat. Horri esker, nago nagoen lekuan. Gero, urrutiko hezkuntzarako unibertsitatean eman nuen izena.

Zelakoa da Aitanaren lantaldean lan egitea?

Hau dena oso handia da. Pentsa, Latinoamerikara 30-35 laguneko lantaldea goaz. Eta hemen gaudenean bikoiztu egiten da kopuru hori. Eta hori, ikusten dena baino ez da; atzean beste horrenbeste lagun egon daitezke lanean. Dena dela, familia handi baten modukoa gara, eta hori eskeretzekoa da lanean. Oso hartu-eman ona dut, baita Aitanagaz, bai beste lankideekin.

Gogotsu zaude abenduko kontzertuetarako?

Orain oporrak baino ez ditut buruan. Bira amaitu eta gero, astebete hartu nuen deskonektatzeko, eta gero ikasten hasi nintzen. Orain Japoniara noa oporretan, eta handik bueltan

"ELITEKO KIROLARIEN MODUAN PRESTATZEN GARA, BAINA EZ DUGU HAIK BESTE KOB RATZEN

izango ditut kontzertuak buruan. Urrian hasiko ditugu prestatzea lanak.

Bideoklipetan ere parte hartu duzu. Zer duzu gurago, horrelakoak egitea ala zuzenean aritzea?

Eszenatokia gehiago gustatzen zaidala esango nuke. Ikusten ez den lan hori ere asko gustatzen zait, baina emaitza agertokian erakusteak ez du parekorik. Aitanaren zaleak asko ematekoak dira, eta oso hurbilekoak. Egia esateko, nire lanetik dena gustatzen zait, eta horregaitik egiten dut; ostantzean ez nuke egingo. Zeozer gustuko ez baduzu, ez zara arriskatzen horrelako jautzi bat egitera.

Madrilen urte luzez jarraitzea aurreikusen duzu?

Aitanaren proiektua ez da amaitu oraindik, eta, beraz, Madril jarraituko dut. Kanpora joateko aukera banu, Londresera edo Parisera, adibidez, joango nintzela esango nuke, baina AEBetara ez; urrutiegi da niretzat.

Noiz konturatu zara amesten zenuen horretan zabilzala lanean?

Apurka egin dudana gauza bat da. Nire buruan aldatzen joan dira lehentasunak. Ez da erraza; Durangora bueltatzen naizenean, lagunak ikusten ditut, euren ikasketak orain bi-hiru urte amaitu dituztenak eta lanean dabilzitanak. Oso harro nago lortu dudana. Dantza nire hobbia zen, zaletasun bat, L'Atelierren egiten nuen dantza, eta asteburu batzuetan Madrilera ere joaten nintzen dantza egitera. Baina orain nire ogibi-dea da, eta lehentasun bat, beraz. Jendeak ez daki zenbat lan egiten dugun. Dantza oso esijentea da.

Rosa Martinez-Alcocer omenduko dute

Paco Obregon zuzendari durangarrak 'Fue en abril' lana idatzi du Rosa Martinez-Alcocer aktorea gogoratzeko; irailaren 14an izango da emanaldia, Durangoko San Agustin kulturgunean, 19:00etan; aktoreak harreman estua zuen Durangaldeagaz

A. M. DURANGO

San Agustin kulturguneko udazkeneko lehenengo emanaldia *Fue un abril* antzezlan izango da. Rosa Martinez-Alcocer aktore eibartarraren omenezko lana da hau (2022an hil zen), eta Madrilen bizi den Paco Obregon durangarrak idatzi eta zuzendu du. Eibarren, Ermuan, Durangon eta Iurretan egingo dituzte emanaldiak, Rosak hartu-eman profesional estua zuen herrietan. Martinez-Alcocerrek makina bat bider lan egin zuen Obregon durangarragaz Geroa antzerki taldean, eta, horrez gainera, hainbat antzerki tailer eskaini zuen Durangaldean.

Sol Lopez aktorea Peparen azalean sartuko da, eta Carlos B. Rodriguezen (Marcos) eta Enare Martinen (Teresa) laguntza izango du. "Komedia bat da, urteetan kaxoian gordeta egon dena eta orain agertokian interpretatzeko berreskuratu duguna; eta goizegi utzi gintuen taula-



Rosa Martinez-Alcocer zena.



Sol Lopez, Carlos B. Rodriguez eta Enare Martin.



Durangoko Azoka.

Izen ematea zabalik dago erakusmahaia ipintzeko

Izen ematea martxan da 59. Durangoko Azokan erakusmahaia ipintzeko; abenduaren 5etik 8ra egingo

A. M. DURANGO

Dagoeneko hasi dira Durangoko Azokaren 59. edizioa prestatzen. Eta interesa duten argitaletxe, diskoetxe, ekoiztetxe, erakunde, banatzaile zein autoekoizleek irailaren 30era arteko epea izango dute erakusmahaia ipintzea eskatzeko; durangokoazoka.eus webgunean egin behar dute eskaria, Erakusketaria atalean. Egitaraurako proposamenak aurkezteko eta Ikasle Goizean parte hartzeko inskripzioak ere "laster" zabalduko dituztela iragarri dute antolatzaileek, ohar baten bitartez. 59. Durangoko

Azoka abenduaren 5etik 8ra bitartean egingo dute. Lau egunez, euskal kulturaren topagune izango da Durango. Landako nobedadez beterik egongo da eta kulturzaileek gertutik ezagutu ahal izango dituzte sortzaileak eta euren lanak.

Marramiauaren aurkezpena

Iazko edizioko Sormen Beka Marramiau sorkuntza taldeak irabazi zuen. Beraz, aurtengo edizioan aurkeztuko dute beka irabazi zuen *Argizagi, zubiak adiskidetasunerantz* izeneko animazio telesaila.



GAI LIBREAN

AINHOA ZABARTE NARBAIZA BEHARGINA

Lehentasuna

Irailak 4, asteazkena. Ikasturte hasierak dakarren alfergura eta esfortzu estra eginda irten naiz ohetik. Eztularen sintonian eman ditut eguneko lehen pausoak sukaldarantz. Atzo sukarra nuela esango nuke, eta gorpuzkera eskasa, baina, kotxera jaitsi eta lanera abiatu naiz.

Euskadi Irratia piztu dut egunero legez. Egunean zehar maiz entzuten dut. 08:00etako eta 10:00etako albistegiak entzun ditut gaurkoan. Gai nagusia: AHT. Atzo ere honi buruz zebiltzan. Nafarroa eta Autonomia Erkidegoaren arteko lotura. 08:30eko elkarrizketa politikoaren zati bat entzuteko aukera izan dut: Eider Mendoza, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu Nagusia: "Ezki-Itsason egitea da eraginkorrena". Pradalesek astean esan duen bezala, "herri honentzat estrategikoa da proiektu hau". Diru kontuez ere hitz egin dute, 1.700 miloi, edo 1.200 milioi, astakeria. Zen-

bat urte ezertarako balioko ez duen tren honen bueltan? Zenbat baserri eta lur? Zenbat diru publiko? Eta zertarako? Haserretu naiz.

Haserrea edo ondoeza, gorputza jota dut, ez dakit zer den. Hori bai, medikuarenera joateko ideia burutik pasatu ere ez zait egin. Zaldibarren gutxienez bi hila-bete egongo gara medikurik gabe. Medikurik gabe!

"EZ AL DA BA HERRI GUZTIETAN MEDIKUA ETA ERIZAINA EGOTEA OINARRIZKO ESKUBIDEA?"

Eta hori gutxi ez eta Elorriora joan behar dugula? Nola joango gara Elorriora? Konexio zuzena jarri dute bertara ala? Ba ez. Durangora autobusa edo tren hartu beharko du medikuarengana joan behar eta kotxean joateko aukerarik ez duenak, eta, ondoren, Elorriora beste autobus bat. Ez al da ba herri guztietan medikua eta erizaina egotea oinarrizko eskubidea? Berrizen ere, hiru medikutik bakararra. Abuztuan zehar eskualdeko herri batzuetan medikurik gabe egun batzuk. Eta abar, eta abar.

Pradalesek hasieratik esan du bere lehentasunak osasuna eta etxebizitza direla. Ez dakit ba nik propaganda hutsa ez ote diren. Hitzek ez dute balio ekintzetan islatzen ez badira. Medikurik gabe Zaldibarren, eta ez gara herri bakarra izango. Oraingo honetan ere azpiegiturak garaile, bizitzak galtzaile. Irudi berria, baina lehengo lepotik burua.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHENAGO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 6

ATXONDO Ikastaroa

'Barregarria izatearen plazera' clown ikastaro trinkoa (Cecilia Paganini aktoreagaz), irailaren 16tik18ra eta 23tik 25era. Izena emateko: 'liburutegia@atxondo.eus' / 697 196 748. *Irailaren 12ra bitartean*

ABADIÑO Jaiak

Donien Atxa jasotzea, 19:00etan. Talde Batuak dantza taldea, 19:15ean.

Paella eta tortilla lehiaketarako izen ematea, 20:00etan. Sound4, 20:00etan. Parrillada, 20:30ean (HAZI elkarte). *Muntsaratz auzoan.*

DURANGO Erakusketa

'Paisaia, genero piktorikotik haratago' erakusketa. Bildumategiko 50 lan daude ikusgai; tartean, iaz dohaintzan jasotako Jose Manuel Rozasen *Berpizkundera*. *Arte eta Historia Museoa, irailaren 22ra bitartean.*

DURANGO Erakusketa

Durungaldeko Artisten Elkartea. *Ezkurdi erakustaretoan, irailaren 15era bitartean.*

DURANGO Jaiak

Umeentzako ekintzak: Marrakzi tailerra, ping ponga, boleibola, klarionak (lur grafitiak) eta aurpegi marraketa, 18:00etan. Txupinazoa eta trikitalariek girotutako pintxo pote herrikoia, 19:00etan. Akustic Covers, 21:00etan. *Ibaizabal auzoan.*

ZAPATUA 7

ABADIÑO Jaiak

Mahai eta aukien banaketa, 10:30ean. Auto klasikoaren topaketa, 10:30ean. Umeentzako entzierroa, 11:00etan. Mozorro lehiaketarako izen ematea, 12:00etan. Puzgarriak eta tailerrak, 12:30ean. Lehiaketarako paellen aurkezpena eta sari banaketa, 14:00etan.

Puzgarriak eta tailerrak, 16:30ean. Kittu taldea, 16:30ean. Ugasio txapelketa, 18:00etan. Apar festa, 19:00etan. Korroxion + Llama a la pasma + Urbagrind, 19:00etan (Xirimiri azpian). Lehiaketarako tortillen aurkezpena eta sari banaketa, 20:00etan. Suzko zezena, 21:30ean. Mahaiak eta aukiak batzea, 22:00etan. Fito y Los Fitipaldis bertso taldea, 22:00etan. Espesor F-Sound, 23:30ean. *Muntsaratz auzoan.*

DURANGO Jaiak

Puzgarriak eta umeentzako ekintzak: ping ponga, boleibola, klarionak (lur grafitiak) eta aurpegi marraketa, 11:00etan. Patinete lasterketa, 11:30ean. Umeentzako sushi tailerra, 12:00etan. Marmitako txapelketa, 13:00etan (aurkezpena, 15:00etan). KSK Selektotarrak, 15:00etan. Mus txapelketa, 16:30ean. Bingoa, 17:00etan. Sagarri txaranga, 19:00etan. Grace of Dionisus + Kohatu + DJ Kapi, 21:30ean. *Ibaizabal auzoan.*

ELORRIO BISITA gidatua

'Naturbideak ezagutzen'. *Turismo Bulegoan, 11:00etan.*

IURRETA Irteera

Nabarnizera bizikleta irteera. Iurreta Txirrindulari Elkarateak antolatuta. *Iurretan, 09:00etan.*

ZORNOTZA Mendi martxa

Boroako Mendi Martxa (14 km). Kamiseten banaketa eta hamaiketakoa, 12:00etan. Giza probak, 13:30ean. Bazkaria, 15:00etan. Bolo txapelketa, 19:00etan (izena ematea 18:30etik 20:00etara). *Boroan, 09:00etan hasita (izena ematea 08:15etik 08:45era).*

DOMEKA 8

ABADIÑO Azoka

Hileko bigarren domekako azoka. *Txanportan, 10:30ean.*

ABADIÑO Jaiak

Jolas parte hartzaileak, 12:00etan. Herri bazkaria, 14:30ean. Dantzatzeko prest, 18:00etan. Txokolatea, 20:00etan. *Muntsaratz auzoan.*

DURANGO Jaiak

Puzgarriak, 11:00etan. Paella herrikoia, 14:30ean. *Ibaizabal auzoan.*

IURRETA Irteera

Gatikara bizikleta irteera. Iurreta Txirrindulari Elkarateak antolatuta. *Iurretan, 09:00etan.*

ZORNOTZA Kontzertua

Sarrabete. Irati Bilbao (ahotsa), Gorka Bravo (zarrabetea eta zanfoa), Pablo Bueno (gitarra eta buzukia), Nerea Quincoces (perkusioa) eta Jordi Arcusa I Pla (baxu elektrikoa). Eleizatan.



ETANOWSKI

ZORNOTZA Eleizatan

Xabier Zeberio kompositoreak *Pause* lana aurkeztuko du zapatuan, Iñiar Sastre, Eñaut Zubizarreta eta Aitor Etxebarria izango ditu taldekide. *Irailak 7, Dudeako San Migel elizan, 20:00etan.*

Bernagoitiko San Migel elizan, 19:00etan (autobusa doan San Migel kaleko osasun zentrotik, 18:00etan).

EGUAZTENA 11

BERRIZ Ekitaldia

Frankismoaren biktimei oroimen ekitaldia. Dantza, lore eskaintza eta poesia emanaldia. *Felipe Urriaga plazan, 18:00etan.*

EGUENA 12

ATXONDO Errezitaldia

'RR-6 Erre(ah)ala' (Maialen Lujanbio). *Amillena Arrazoloko Bentan, 20:00etan.*

ZAPATUA 14

DURANGO Antzerkia

'Fue en abril' Rosa Martínez Alcocerri omenaldia (Paco Obregon). *San Agustin kulturgunean, 19:00etan.*

ZORNOTZA Kontzertua

Northern Cellos. Eleizatan. *Etxanoko Andra Marian, 20:00etan (doako autobusa San Migel kaleko osasun zentrotik, 19:30ean).*

ZINEMA

BERRIZ

KULTUR ETXEA

ZINEMA MEMORIA ETA GIZA ESKUBIDEEN II. ZIKLOA

Trenak ekarritakoak eguaztena 11: 19:00.

Contadores eguena 12: 18:30.

Gaza

Gaza, jóvenes bajo la ocupación barikua 13: 18:30.

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

Bitelchus Bitelchus

barikua 6: 18:00, 20:30. zapatua 7: 17:30, 19:00, 21:30. domeka 8: 17:00, 19:30. astelehena 9: 18:00, 20:15. martitzena 10: 18:00, 20:15. eguaztena 11: 19:00.

Reinas

barikua 6: 18:00, 20:30. zapatua 7: 19:00, 21:30. domeka 8: 19:30. astelehena 9: 18:00, 20:15. martitzena 10: 18:00, 20:15. eguaztena 11: 19:00

Mi amigo el pinguino

barikua 6: 18:00, 20:30. zapatua 7: 16:45, 19:30, 21:30. domeka 8: 17:00, 19:30. astelehena 9: 18:00, 20:15. martitzena 10: 18:00, 20:15. eguaztena 11: 19:00.

Central Parkeko Heroiak

zapatua 7: 16:45. domeka 8: 17:00.

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

Odio el verano

barikua 6: 20:00. zapatua 7: 20:00. domeka 8: 20:00. astelehena 9: 20:15

Gru 4. Mi villano favorito

zapatua 7: 17:00. domeka 8: 17:00.

ELORRIOKO FERIXA NAUSIKOAK 2024

IRAILAK 6

BARIKUA

09:15 Elorrioko martxa zirkularra. *Ibilbidea: plaza-San roke-San jose- autokarabana gunea- Arraiarte-San agustin-Kurutxondo-plaza-kiroldegia- Txanberi-Angio-Gazeta-Gerbilla-Aldape-San juan-Zenita-Argiñeta-Lekeriketa-Kurutxondo-plaza.* (Antolatzailea: Durangaldeko Bizidun nagusien elkarte)

11:30 Hildako jubilatuen omeneko meza. *Sortez garbiaren basilikan.*

13:00 Kopaua Elorrioko jubilatuentzat eta ibiltarientzat. *Aldatsekuan.*

18:00 Elorrioko buruhandiak. *Plazan.*

18:00 Areto futboleko ate irekiak (16 urteko gorako emakumeak). *Kiroldegian.* (Antolatzailea: Elorrioko Buskantza FKE)

18:00 Jubilatuentzako dantza. *Aldatsekuan.*

19:00 Chicharrón Circo Flamenco 'Sin ojana'. *Urarka.*

20:00 Kantarte radio pop ikuskizuna. *Arriolan.*

21:00 LVIII. idi proba txapelketa. *Probalekuan.*

22:15 Suzko zezena. *Plazan.*

22:30 Kontzertuak plazan: Unidad Alavesa eta Nøgen (Antolatzailea: txosna batzordea)

IRAILAK 7

ZAPATUA

08:00 Sukalki eguna. *Aldatsekuan.* (Antolatzailea: Iturrizoro elkarte)

11:30-14:00 / 16:30-19:00 Haur parkeak eta Txu-txu trenak.

13:00 Bitsaren jaia. *Esteibarlandan.*

16:00 Eingo plaza dantza eta euskal kantak. *Aldatsekuan.*

18:00 Txokolatada. *Plazan.* (Laguntzailea: La Esperanza nagusien elkarte)

18:00 Karrozen jaitsiera. *Aldatsekuan.*

18:00 DJ animadorea. *Plazan.*

21:00 LVIII. Idi proba txapelketa. *Probalekuan.*

22:15 Suzko zezena. *Plazan.*

23:00 DJ Gorka Pérez. *Plazan.*

23:00 La Porteña tango. *Urarkan.*

00:00 Techno gaua. *Txosnagunean.*

IRAILAK 8

DOMEKA

11:30-14:00 / 16:30-19:00 Haur parkea.

12:00 Elorrioko Kolore eta Zaporeak. *Kanpokalen.* (Antolatzailea: Kainabera GKE)

13:00 Herri kirolak. *Plazan.*

16:00 Zesta-punta, ateak irekitzeko eguna. *Hilario Azkarate frontoian.*

17:00 Goi mailako zesta-punta partidua (emakumeak). *Hilario Azkarate frontoian.* (Antolatzaileak: Durango Jai Alai zesta-punta eskola eta Hori hori Elorrioko pilota kluba)

18:00 Bertso saioa: Miren Amuriza, Aitor Bizkarra, Sustrai Colina eta Uxue Alberdi. *Gai jartzailea: Ainhoa Urien.* *Aldatsekuan.*

19:30 Aukeran dantza konpainia 'Aieurri'. *Plazan.*

IRAILAK 9

ASTELEHENA

21:00 LVIII. Idi proba txapelketa eta sari banaketa. *Probalekuan.*

IZURTZAKO JAIK 2024

IRAILAK 6

BARIKUA

17:30 Gertufest Santo Tomasen:

18:00 Antzerki saio laburrak: Colectivo Lambearte: 'Lambe-lambe' / Alfonso Díez: 'El mago Winston Coppeland' / Zakapüs: 'The flea zirkus'.

20:00 Boluda Kabareta zirkua: dance, clown eta umorea.

21:00 'Pyrocircus ladies' ikuskizuna. Kontzertuak: Old time spooks, Sencillos pero elegantes, Ácido folklórico eta Jony txintxes y Billy ladilla.

Arratsaldean

- Artisautza azoka: Birak, Juli, Zua, Art-Izar, Gorakat, Jandameida, Xaboi, Amalur, Itsasegurra, Zunart & Jonedelamaza.

- Encajeras & Graffiti / Eko Karrusela: 'Al Abordaje' / Arku tiroa.

- Taberna eta janaria.

IRAILAK 7

ZAPATUA (SANTO TOMAS EGUNA)

10:00 Kalejira Jaizalegaz.

11:00 Familientzako Gertufest Santo Tomasen:

11:00 Antzerki saio laburrak: Alfonso Díez: 'El mago Winston Coppeland' / Zakapüs: 'The flea zirkus'.

11:30 Piknik lehiaketa.

12:00 Mendigain dantza taldea.

12:30 Kontzertu akustikoa: Fleur De Malheur.

13:30 Txotxongilo antzerkia: Cia. Picuentos: 'Hariak Zirkus'

Goizean

- Artisautza azoka: Birak, Juli, Zua, Art-Izar, Gorakat,

Jandameida, Xaboi, Amalur, Itsasegurra, Zunart & Jonedelamaza.

- Eko Karrusela: 'Al Abordaje'. Txiki-txoko.

- Taberna eta janaria.

19:00 Tortilla txapelketa *Frontoian.*

20:30 Tortillak aurkeztea.

21:30 Herri afaria.

22:30 Luhartz.

IRAILAK 8

DOMEKA

10:00 Kalejira Jaizalegaz.

11:00 Haur parkea. *Plazan.*

13:30 Igel txapelketa. *Plazan.*

14:30 Jubilatuen bazkaria.

17:30 Mus txapelketa. *Argintxun.*

17:30 Partxis txapelketa. *Plazan.*



Mikel Garitaonandia Melillako entrenamendu batean. CLUB MELILLA BALONCESTO

"Melillakoa oso proiektu inportantea da; Urrezko Ligako egitura du"

Mikel Garitaonandia Larrinaga saskibaloia entrenatzailea

SASKIBALOA Zornotza STko etapa amaituta, Mikel Garitaonandiak (Durango, 1984) erronka berri bat hasi du Melillan. Taldearen helburua Urrezko Ligara bueltatzea da

Joseba Derteano DURANGO

Gatx da Mikel Garitaonandia Zornotza ST ez den beste klub batean imajinatzea, hamalau urte eman dituelako elastiko berdea defendatzen, baina horixe da errealitatea. Orain Melilla taldeko entrenatzailea da. Melilla Zilarrezko Ligako talderik boteretsuenetakoa da eta Urrezko Ligara bueltatzeko jomuga garbia du.

Zornotza STko etapa amaitu izanak baino gehiago, berau gertatu den moduak mindu zaitu gehien?

Bai, zalantzarik barik. Hamalau urteko hartu-emana amaitzeko beste modu bat espero nuen. Argi dago zikloak amaitu egiten direna; hori onartzen dut eta ados nengoen. Eta esango nuke alde biezat osasuntsua zela gure bideak banatzea. Baina elkarregaz egindako lanak beste agur bat merezi zuela deritzot. Baina, tira, aurrera egin beharra dago. Lagun asko dut Zornotzan, onena opa diet eta ea denboraldi polit bat egiten duten.

Melillan hasi duzun abentura inflexio-puntu bat ere bada zuretzat: hobya zena ogibide bihurtu gura duzu.

Bai, horrela da. Urteetan egon naiz horretan pentsatzen. Emazteak esaten zidan gauzak ondo egiten nabilela, eta merezi zuela probatzea. Bere bultzadagaz eta Zornotzako etapa amaituta, momentua heldu zela iritzin. Ordezkarri bat topatu eta merkatuan sartu nintzen, talde bila. Egoera berria zen niretzat, aurretik bizi bakoa. Zorionez, aukera batzuk sortu ziren, eta, azkenean, Melillaren aldeko apustua egin nuen.

Gertuagoko aukerak izango zenituen, hainbaten. Zergaitik Melillaren aldeko apustua?

Bai, gertuagoko proposamenak ere izan nituen, baina niretzat

urrats garrantzitsua zen eta alderdi asko aztertu nuen. Melillakoa oso proiektu inportantea da; Urrezko Ligako egitura du. Iaz maila horretatik jaitsi ziren eta aurten helburu argia dute: mailaz igotzea. Klubaren profesionaltasun maila ere aipatzekoa da. Talde gutxi dute Melillak duen antolakuntza, eta oraindino gutxiago Zilarrezko Lebia Mailan. Proiektuak eta profesionaltasunak kokalekuak baino pisu gehiago izan dute nire erabakian. Gainera, Melillako zuzendari teknikoa ezagutzen nuen, eta interes handia ipini zuen nigan. **Zertan igartzen da egitura sendo hori?**

Dirua du, jende asko dago klubaren inguruan lanean, entrenatzailearen lana entrenatzea baino ez da, jokalaria beste babes-marko eta egoera ekonomiko batean daude... Zilarrezko Mailan 28 talde daude eta seguru nago gu sei boteretsuenen barruan gaudena. Beste datu bat, klubaren dimentsioa ulertereko: orain zortzi urte, ACBrako igoera lortu zuen. Gero, gatx da diru nahikoa batzea, eta bulegoko kontuengaitik ez zuen igoera baliatu, baina kantxan eskubidea irabazi zuen.

Gainera, irakurri dudanez, aurten hiriko saskibaloia klub biak batean batu dira.

Bai. Ni nabilen taldea jaitsi aurretik, Zilarrezko Ligan bazegoen jada Melillako beste talde bat, CD Enrique Soler izenekoa. Azkenean, klub biak bakar batean

"ORDEZKARI BAT TOPATU ETA MERKATUAN SARTU NINTZEN. EGOERA BERRIA ZEN NIRETZAT"

batu dira. Ondorioz, egitura handiagoa du orain. Iaztik jokalaria bik jarraitzen dute, biak Enrique Soler taldean zebiltzan. Gainerako denak berriak dira.

Abuztu erditik Melillan zaude. Zelakoa da hango bizimodua?

Desberdina. Melilla oso hiri polita da, kostan dago eta hondartza du. Udan bero eta hezetasun handia dago, baina gainerako urte osoan oso eguraldi ona egiten du. Hiritarrak oso atseginak dira, oso ondo tratatzen zaituzte. Andaluziarren antzerako izaera dutela esango nuke, oso alai. Harrera zoragarria egin didate eta esker oneko nago.

Bestalde, Melilla Marokotik banatzen duen hesiak mugatu egiten du hiria. Kostaldetik pasealdi bat ematera irten eta, bat-batean, hesia aurrean. Hasi harritu egiten zaitu. Hemen gertaturikoak gogoratuta inpaktua eragiten dizu.

Saskibaloia pasioz bizi duten kirola da?

Egia esan, azken urteetan asko jaitsi da. Urte askoan borrokatu dira ACBrako igoera lortzeko, eta gauzatu ezin izan zuten denboraldi hartan zale asko galdu zuten. Jendea apur bat desilusionatu egin zen. Beste faktore bat ere badago. Zoratzekoa da Melillak areto futboleko, saskibaloian zein boleboleko maila gorenetan duen klub kopurua, gizonetan nahiz emakumeetan. Nazioarteko triatlotoiak ere hartzen ditu. Kirolak sekulako indarra du hiri honetan. Beraz, 80.000 biztanleko hirian, emaitzak ilusionagarriak ez badira, herritarrek beste aukera asko dute. Guretzat garrantzitsua izango da liga ondo hastea, zaleak berreskuratzeko eta berriro konektatzeko.

Zesta-punta Elorrion, zaletasuna piztu guran

ZESTA-PUNTA Durangon zesta-punta biziberritzen dabilen sasoi honetan, Elorrion ere ahalegina egin gura dute. Ferixa Nausikoen barruan, Elorrioko Hori Hori eta Durangoko Jai Alai klubek emakumeen zesta-punta jaialdia antolatu dute domekarako

Joseba Derteano ZESTA-PUNTA

Aurtengo Elorrioko Ferixa Nausikoak nobedade batez datoz euskal pilota arloan. Elorrioko Hori Hori eta Durangoko Durango Jai Alai pilota klubek emakumeen kalitatezko zesta-punta partidu bat antolatu dute; momentu honetan elite mailan puntan dabilzan zestelariak batuko dituzte. Elorriok gaur egun baino hartu-eman estuagoa izan du zesta-puntagaz iraganean, eta ekimena lehenengo harria izan daiteke lotura hura berreskuratzeko. Jaialdirako sarrera doakoa da.

Zesta-punta partidua domekan izango da, 17:00etan, Hilario Azkarate pilotalekuan. Laukoteko protagonistetariko bat Helena Barrenetxea durangarra da. 16 urteko aurrelariak Laia Zabala markinarra izango du bizkarzain. Biek Mutrikuko bikote bat izango dute aurkari, Ane Elezgarai eta Naroa Merinok osaturikoa, hain zuzen ere.



Emakumeen zesta-punta jaialdi profesionala, Durangoko pilotalekuan. ERAMAN

Elorriokoa Durangokoa baino frontoi laburragoa da. 36 metro luze da, hamar koadro pasatxokoa. Beraz, pilotak neurri horretarako bereziak izango dira, ohikoak baino motelagoak. Azken urteetan geroago eta gehia-

gotan ikusten dira erremintako pilota modalitateak (zesta-punta, erremontea eta pala) frontoi motzean, eta emaitza positiboa izan da. Beraz, ikuskizuna "segurtatuta" dagoela esan dute antolatzaileek.

Zesta-punta jaialdia pilotalekura gazteak zein helduak erakartzeko amu modura erabiliko dute antolatzaileek. Partidu nagusiaren aurretik, 16:00etan, atek zabaltzeko saio bat egingo dute. Bertan, irakasle baten laguntzagaz, bertaratzen direnek lehenengo hartu-eman izango dute zesta-puntagaz.

Hartu-eman historikoa

Gaur egun zesta-puntak ez du indarririk Elorrion, baina atzera begira jarrita, zestelari profesional bat baino gehiago eman duen herria da. Horren adibide da Aniceto Sagastizabal, mundu osoan (AEB, Mexiko, Italia...) aritutako puntista, 1960 eta 1980. urteen artean.

Victor María Bereikua da beste adibide bat, Markinan hezi baina Elorrion jaio zen pilotaria. 'Elorrio' izenagaz jokatu zuen kirol bizitza osoan, bere jaioterriaren omenez. Hiru hamarkada eman zituen Ameriketako Estatu Batuetan, 1972tik 2002ra. Denbora horretan, zesta-puntaren urrezko aroa bizi izan zuen sasoi izarrik handienetarikoa izan zen Tampako (Florida) eta Hartford (Conncticut) Jai Alai (Miami) pilotalekuan, besteak beste. Kantxatik kanpora ere fama hartu zuen, honako honengaitik: 1984tik 1989ra NBC eta USA Network telebista kanaletan eman zuten Miami Vice telesail ezaguneko sarrerako abestian ageri da, partidu batean.

Larrasoloeta urteurreneko xake torneoa prestatzen dabil

14 urtera arteko txapelketa izango da, irailaren 15ean; izen ematea hasita dago

J.D. XAKEA

Azken urteetako bideari jarraituta, Larrasoloeta xake taldeak umeak xake klubera erakartzeko asmo sendoagaz hasi du ikasturtea. Horrela, irailaren 15eko domekarako Udako II. Xake Torneoa antolatu dute, 8tik 14 urtera arteko gaztetxoentzat. Xakea kalera ateratzeko helburuagaz, txapelketa Ezkurdi parkean izango da, 10:30ean hasita.

Modu bi daude izena emateko: ajedrez.durango@gmail.com helbide elektronikora idatzita, eta 648 741 975 telefonora deituta.

40. urteurrena

2024a urte berezia da Larrasoloeta klubeko kideentzat; izan ere, 40. urteurrena ospatzen dabilta, eta umeen torneoa ospakizun horren barruan kokatzen da. Ondoren, irailaren 21ean, Adiskidetasunaren Torneoa eta Eskolarteko Txapelketa egingo dituzte.



JOKALDIA

ENERITZ ITURRIAGA MAZAGA TXIRRINDULARITZA

Apatako Saria

Zelan aldatu diren kontuak. Umea nintzanean, herri guztietako jaietan txirrindulari lasterketa bat egoten zen. Jaietako ohiko osagaia ziren eta giro polita sortzen zen euren inguruan. Lasterketaren ostean, beti herrian geratzen ginen bazkaltzen. Bazkalostean ere ez zen faltako musikarik eta dantzarik. Azkenean, txirrindularitza familian egunpasa eder bat egiteko aitzakia zen. Oso oroitzapen politak ditut, bai.

Baina gaur egun asko aldatu da panorama. Lasterketak gutxitu egin dira... gehienbat gazteenak. Orain ikusten diren proba denak profesionalenak dira, eta hori ondo dago, umeek euren ametsetako idoloak ondo-ondoan ikusteko aukera izaten dutelako. Ez delako berdina txirrindulari onenak telebista bidez ikustea edo metro gutxira daudela sentitzea.

Baina hori ez da nahikoa. Oinarrizko ziklismoa gehiago landu beharra dago. Zenbakiei erreparatzeak

pena ematen du, baina azalera atera behar dira, errealtatea ezagutu behar dugulako, gero erremedioak bilatzeko. Udako lasterketetan, 50-60 txirrindulari aritzen dira mutiletan asko jota; beraz, imajinatu zelakoa den kopurua emakumeetan.

Horregaitik, orain dela pare bat hilabete esan zidatenean emakumeetan ez zegoela Euskadiko Txapelketa antolatzeko inor, jo eta ke hasi nintzen lanean,

**OINARRIZKO ZIKLISMOA
GEHIAGO LANDU BEHARRA
DAGO. ZENBAKIEI
ERREPARATZEAK PENA
EMATEN DU**

txapelketa hau bertan behera geratu ez zedin. Ni neu hainbat aldiz irabazitakoa naiz Euskadiko txapelketa, eta ilusioa egiten zidan. Nire etxe inguruko udalekin hitz egin, eta azkenean, Atxondon egin genuen. Oso pozik hartu zuten proposamena eta aurrera egiteko aukera eskaini ziguten. Urte asko dira Atxondon lasterketarik egin ez dela. Denegaitik antolatu genuen, neska txirrindulariengaitik, harrobiagaitik, eta baita txirrindularitza maite dugunok bultzada bat eman beharrean gaudelako ere. Oso esker oneko gaude Atxondoko Udalarekin, eta baita lasterketa behar den moduan irteteko lan eskerga egin zuten boluntario guztiekin ere. Euren lan gogorrek meritu handia du.

Jarraipena ematea da gure asmoa. Datorren urterako ideia politak bururatu zaizkigu eta oinarrizko txirrindularitza lantzen jarraituko dugu. Eta, noski, emakumezkoena batik bat!

GUARDIAKO BOTIKAK

IRAILAK 6

09:00-09:00

Etxebarria, Montevideo etorb. 2 - Durango

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

IRAILAK 7

09:00-09:00

Bazan, Uribarri 5 - Durango

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

IRAILAK 8

09:00-09:00

De Diego, Inbaurrondo 22 - Durango

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

IRAILAK 9

09:00-09:00

Sagastizabal, Askatasun etorb. 19 - Durango

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

IRAILAK 10

09:00-09:00

Mugica, Andra Maria 9 - Durango

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

IRAILAK 11

09:00-09:00

Balenciaga, Ezkurdi plaza 8 - Durango

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

Irailak 12

09:00-09:00

Gaztelumendi, J.A. Abasolo 2 - Durango

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

ZORION AGURRAK



GOZATU GOZOTEGIA
 Ermodo, 11 DURANGO
 Tel.: 946 201 663 / 661 40 14 00
 gozatudurango@gmail.com
 Gozatu Gozotegia
 @gozaturgozotegia



DURANGO

Oier

Abuztuaren 30ean, 6 urte. Zorionak, Oier! Besarkada handi bat familia osoaren partez. Asko maite zaitugu!



IURRETA

Natali Cebrian

Abuztuaren 30ean Natali Cebrianen urtegune ospatu dogu. Zorixonak, laztana!



IURRETA

Karmelo Iriondo

Irailaren 6an Karmelo Iriondon urtegune da. Zorixonak, aittitte! Besarkada handi bat!

Urte askotarako!

Hamabostean behin, jasotako zorion-agurren artean **GOZATU gozotegiko tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion-agurrekin batera.

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet

Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta *Anboto.org/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.

Posta elektronikoa


Mezua bidali *zorionagurrak@anboto.org* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Anbotoren ordezkartzara edo deitu 946 232 523 telefonora.


EGURALDIAREN IRAGARPENA

EUSKAL HERRIA



DURANGALDEA

Zapatua, 7



Domeka, 8



hitz artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzaburudenda.com

#salduenak



MAITASUN KAPITALA
Karmelo Jale (Elikar)



MONOGAMOAK
Itziar Aizte (Sisat)



FRANCISCO PASQUALEREN BOSGARREN ARIMA
Unai Elorriaga (Susa)

EKINTZAK

IZEN-EMATEA: Irailak 11-20 erroldatuak
18-20 ez erroldatuak

2024 · 2025




BIBLIOTEKA

INMOBILIARIAK



C.E.E: E 210.000 €

IBAIZABAL APARTAMENTUA. Sukaldea eta egongela handia. Trastelekua eta garajea. Bizitzen sartzeko moduan.




C.E.E= D 359.000 €

ERROTARITXUENA 95 m². 3 logela, 2 komun, egongela eta sukalde jantzia. Terraza. Garajea eta trastelekua.



C.E.E: E 150.000 €

DURANGO Atikoa. 2 logela, komuna, sukalde eta egongela. Guztiz berriztatua. Bizitzen sartzeko moduan.



C.E.E: E 198.000 €

ABADINO 2 logela, 2 komun, egongela eta sukalde. Ganbara. Garajea. Mendietara ikuspegiak, hegoaldea. Bizitzen sartzeko moduan.



C.E.E: F 170.000 €

LURRETA 70 m². 3 logela, komuna, sukalde eta egongela. Berogailua. Igogailua. Hegoaldea.



ETXEBIZITZAK SALGAI **DURANGO**

Askatasun etorbidea: 2 logela, 2 komun eta sukalde-egongela. Terraza handia. Garajea eta ganbara.

Pinondo: Logela biko atiko ederra. Sukaldea eta komuna. 50 m²-ko lokalarekin batera salgai.

Barrenkalea: Logela bateko apartamentua. Sukaldea, egongela, eta komuna. Trastelekua.

Tabira: 4 logela, 2 komun, egongela eta sukalde. Oso argitsua.

BERRIZ

Berriz: 2 logela, egongela terrazarekin, sukalde eta komuna. Garajea eta tra stelekua.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO

Atxondo: 2 logela, komuna, sukalde eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

LURSAILAK SALGAI

Tabira: 1.445 m²-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Laua.

Iurreta: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

Abadiño: Etxezurin kokatua. 300 m². Berriztatuko. Lursailarekin. Ganbara.

Berriz: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatuko. Teiltua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

Berriz: Eitua auzoan. Baserri ederra. Berriztatuko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politak.

Atxondo: Axpe. Baserri ederra salgai. Berriztatuko. Kokapen izugarria

Mañaria: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

Mendata: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatuko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

BULEGOAK ALOKAIKUAN **ABADINO**

30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

LOKALAK ALOKAIKUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

Matiena: 460m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.



C.E.E: E. 209.000 €

DURANGO Madalena: 80 m². Halla, egongela, sukalde, 3 logela eta komuna. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-mendebalde-iparralde). Argitsua. Zonalde berdez inguratuta eta zerbitzuzugueetatik gertu. Egoera onean. ITE-a pasatutakoa eta ez du berrikuntzarik behar.



C.E.E: F. 154.000 €

ABADINO Alfredo Baeschlin: 96 m². Halla, egongela, sukalde, 4 logela, despentsa eta komuna. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-mendebalde). Argitsua. Ikuspegiak. Zonalde lasaia, berdegunez inguratuta. Berriztatuko, banaketa berria egiteko aukerarekin. Aparkalekua atariaren ondoan eta 14m²-ko lokala. Aisialdirako espazio komunitarioa. ITE-a pasatutakoa. Etxebizitza ez du derramarik zorretan.



C.E.E= E. 169.000 €

MATIENA Txinurrisolo: 73 m². Egongela-sukalde, 3 logela eta komuna. Balkoia. Berriztatua. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du (ipar-ekialde-hegoaldea). Leku onean kokatua, zonalde berdez eta zerbitzuzugueetatik gertu. 6 m²-ko ganbara. ITE-a pasatutakoa. Ez du berrikuntzarik behar.



C.E.E: BIDEAN. 186.000 €

MUNTSARATZ BOE: 70 m². Halla, egongela, sukalde, 2 logela eta 2 komun. Terraza. Etxe osoak kanpora ematen du (ipar-mendebalde). Argitsua. Zonalde lasaia, berdegunez inguratuta. Egoera onean. Garajea eta trastelekua.



C.E.E: BIDEAN. 440.000 €

ABADINO Gaztelua auzoa: 318 m²-ko baserria. Behoko solairua, lehenengo solairua eta solairua estalkipean. Kotxe-tokia, 78 m² erabilgarri dituena. 15.317 m²-ko partzelan, laua, orientazio onekoa (eguzkitsua eta argitsua) eta bista ederrekoa. Egitura baldintza onetan. Barrualdea berriztatuko. Ingurune berdea eta lasaia, Abadiñotik 5 minutura eta Durangotik 10 minutura. Familiabakarra egiteko aukera.



BERRIAK **DURANGO**

Ambrosio Meabe: 2 logela, sukalde, egongela eta 2 komun. Terraza. Ganbara eta igogailua.

LEHEN 280.000 € / Orain 250.000 € E.E.Z=Bidean

Komentu kalea:

2 logela, sukalde-egongela eta 2 Komun.

Balkoia, ganbara, igogailua eta garajea.

LEHEN 379.000 / ORAIN 369.000 E.E.Z=B

DURANGO

Askatasun Etorbidea: 3 logela, sukalde, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 320.000 € ORAIN 298.000 € / E.E.Z=E**

Askatasun Etorbidea: 3 logela, sukalde eskegitokiagaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **LEHEN 280.000 / ORAIN 250.000 € / E.E.Z=E**

Barrenkalea: 2 logela, sukalde, egongela eta komuna. Igogailua. Berriztatuko. **LEHEN 150.000 € / ORAIN 138.000 € / E.E.Z=G**

Barrenkalea: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

Errotarituena: 3 logela, sukalde, egongela eta 2 komun. Garajea. Trastelekua. Igogailua. **359.000 € / E.E.Z=D**

Juan de Olazarán: 3 logela, sukalde balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

Komentu kalea: 2 logela, sukalde, egongela balkoiarekin eta komuna. Igogailua. Ganbara. **187.000 € / E.E.Z=E**

Santikurutz Kalea: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeke 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 550.000 € / ORAIN 495.000 €**

ABADINO

Konpontzeko eraikina. Behe solairua eta 3 pisuko altuera. **215.000 €**

BERRIZ

Murgoitio auzoa: Berreraikitzeke baserria lurzorugaz. **LEHEN 280.000 € / ORAIN 250.000 €**

GARAJE

Momoitio auzoa: Etxebizitza eraikitzeke lursailak. Aukera ezberdinak.

IZURITZA

Elizalde auzoa: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukalde, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **LEHEN 620.000 € ORAIN 570.000 € / E.E.Z=E**

OLIXANDIO

Elixoste: 3 logela, sujalea balkoiarekin, egongela eta komuna. Ganbara. Igogailua. **145.000 / E.E.Z=F**

Zelaieta auzoa: Baserria. 40.355 m²-ko lursaila. 4 logela, sukalde, egongela eta 2 komun. Balkoia. **LEHEN 348.000 /ORAIN 280.000 E.E.Z=G**

GARAJEAK SALGAI / ALOKATZEKO

Durango eta lurretan, aukera desberdinak.

LOKALAK SALGAI / ALOKAGAI

Informazio gehiago bulegoan.



LAU-HORTZA

MAITE EUBA

% 100 zara?

Ez dago probokaziorik, ez tranparik galderan. Inoiz hausnartu duzu zenbat zaren zure ingurukoentzat? Lagunaren laguna. Bikotekidearen bikotekidea. Seme/alaba. Aita/ama. Auzokoa. Batzordekoa. Manifakoa... %100 zenbat zara harreman bakoitzean?

Esango nuke ez dagoela %100 emateko gaitasuna duenik; asetu zaituenik/dugunik bizitzako arlo guztietan. Zenbat kalte egin duen horretan maitasun erromantikoak. "Azukre koskorra" aurkitzean betiko zorionean urtuko ahal zara! Horretara arima bikia aurkitzen ez duena betiko erren geratuko ei da. Bestalde, zenbat lan batentzat bakarrik! Askoz hobeto lana banatzea, ezta? Anitza edo ugaria izateak eta elkarbanatzeak onura baino ez digu ekarriko. Lagunez, familiatz eta abarrez inguratuz gero, bizitza aberatsagoa edukitzeko parada ezin hobea dugu.

Ni behintzat ez naiz %100 ez ezertan ez inorentzat eta ez diot inori tamaina horretako zamarik jarriko. Pentsamendu horrek sarritan eztabaidak eta disgustu txikiak ere ekarri dizkit. %60 eman dizut eta zuk %30 baino ez. Denok ez dugu berdin behar izaten. Zilegi da. Elkarri ematen dioguna ematen diogula, gustura eta lekua egiten diogunean horixe izango da ehunekorik interesgarriena. Zati handia zein txikia izan, benetakoa bada bejondeizula!

AKUILUA



"Zapatari lanean lasaitasuna aurkitu dut"

MIKEL ARZUAGA ARIN ZAPATARIA

Mikel Arzuaga (Durango, 1983) Donibane Garaziko zapatari berria da, joan zen apiriletik. Irakasle lanagaz uztartuz ikasi du ofizioa, azken hiru urteetan

Aitziber Basauri DURANGO

Mikel Arzuaga Donibane Garazira joan zen orain 12 urte. Irakaskuntzan lan egin du urte hauetan, orain hiru urte lanbidez aldatzea erabaki zuen arte. Azken 10 urtean Donibane Garaziko zapataria izan den Mixelen testigua hartu du.

Zerk eraman zaitu zapatari izatera?
Irakaskuntzan denerik egin dut, baina, hala ere, lan zaila dela iruditzen zait beti, eta niretzat ez

oso aproposa. Pandemia denboran ez nintzen irakasle izan. Orduan jaio zen hirugarren alaba, eta etxean egon nintzen beragaz, gogoetan. Bada, egun batez, zapatak konpontzera joan nintzen zapatariarengana. Larria lantzen ikusi nuen, eta ofizioa galtzen ari zela-eta norbaitek segida hartzea gura lukeela esan zidan. Etxekoekin berba egin eta gero, hile bira zapatariarengana bueltatu eta

ea erakusteko prest zegoen galdetun nion.

Berak erakutsi dizu ofizioa.

Bai. Bera orain 10 urte instalatu zen Garazin, eta beste inore ez da egon han lan hori egiten. Hiru urtez joan naiz ofizioa ikastera, nire denbora librean. Irakasle lanagaz uztartu dut. Zapatak egiteko formakuntza ere hartu dut.

Zelan doa lana?

Nahiko motela naiz (barrez).

Jendeak pazientzia behar du, baina pozik ei daude. Badut lana. **Oraindino badugu zapatak konpontzeko ohiturarik?**

Bai, hemen inguruan behintzat geroago eta gehiago. Hala ere, gaur egun zapatak oso merke erosi daitezke, eta ez daude konpontzeko eginda. Kalitate txarreko materialagaz eginda daude eta askotan ez du merezi konpontzerik. Nekeza da merkatuagaz leihatzea. Aberatsentzat kalitatezko oinetakoak konpontu ezean, ez da gainsoldatarik ateratzen. Dena dela, zerbitzua ematea pozgarria da bezeroarentzat, eta niretzat ere bai. Zapatari lanean lasaitasuna aurkitu dut.

Urruneko bezeroak dituzu. Galtzen dabilen ofizioa da zapatariarena?

Bai, gutxi gara. Mauletik, Larraintetik.. etorri zaizkit. Garai batean, Hazparden, Maulen... oso garatuta zegoen zapatagintza, eta artisau haien lana berreskuratzeko, tokiko zapatak produzitzeko zeozer egitea posible ote den ikusi gura nuke, beste zapatari batzuekin elkarlanean eta luzera begira. Horretara bideratu gura nuke lanbidea. Horretarako, jendearen ohiturak aldatu beharko lirake, hori ez da egun batetik bestera lortzen.

Bestelako osagarriak ere eramateko dituzte konpontzeko?

Denerik. Maletaren erruberrak edo metalezko eskumuturrekoak, adibidez. Mugikorrenzako zakuak ere eskatu dizkidate.

"ZERBITZUA EMATEA POZGARRIA DA BEZEROARENTZAT, ETA NIRETZAT ERE BAI"



HEGAN RENT

Goitondo behekoa industrialdea, 1-1 partzela

48269 Mallabia (Bizkaia)

Tel.: 943 171 362



administracion@alkideba.net · www.alkideba.net

Furgoneta alokairu
zerbitzu berria!

